MUSIKASTE.EUS

# 51

EUSKAL
MUSIKAREN
ASTEA

2023

SEMANA
DE LA
MÚSICA
VASCA



Errenteria

# MUSIKASTE

Maiatzak 16-27 mayo

# 51

EUSKAL
MUSIKAREN
ASTEA

# MUSIKASTE

2023

SEMANA
DE LA
MÚSICA
VASCA



**ANTOLATZAILEAK** ORGANIZAN
Andra Mari Abesbatza
Coral Andra Mari
Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa
Eresbil-Archivo Vasco de la Música

**SUSTATZAILEAK** PROMUEVEN
Errenteriako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza Kultura Saila
Departamento de Cultura
del Gobierno Vasco

**BABESLEAK** PATROCINAN
Laboral Kutxa
Musika Bulegoa
Super Amara

**LAGUNTZAILEAK** COLABORAN
Herri Arte Eskola
Musikene
Musikagileak

AMA
Andra Mari Abesbatza

Eresbil



# AURKEZPENA
## Presentación

# EGITARAUA
## Programa

**Maiatzak 16, 17, 19, 20, 21 mayo**


| | |
|---|---|
| Antzinako musika<br>Música antigua | 13 |
| Ahotsa eta pianoa<br>Voz y piano | 17 |
| Ganberako musika -Lied<br>Música de cámara -Lied | 21 |
| Kilometroak | 23 |
| Igande jarduna<br>Jornada dominical | 28 |


**Maiatzak 24, 25, 26, 27 mayo**


| | |
|---|---|
| Musika garaikidea<br>Música contemporánea | 35 |
| Jazza<br>Jazz | 37 |
| Koruen eguna<br>Día coral | 43 |
| Amaierako kontzertua<br>Concierto de clausura | 47 |

| | |
|---|---|
| Musikagileak / Compositores | 49 |
| Kontzertu didaktikoak<br>Conciertos didácticos | 89 |
| Herri Arte Eskola kontzertuak<br>Conciertos de Herri Arte Eskola | 90 |



# I. HERIOTZAREN MENDEURRENA

## I Centenario del fallecimiento de

**Amenabar, Marcelino**
Cuzcurrita de Río Tirón (1879-1923)

**Aquilino del Sgdo. Corazón de Jesús (OCD)**
Arrasate (1868-1923)

**Aramburu, Ramón**
Beasain (1902-1923)

**Brull, Melecio**
San Martín de Unx (1858-1923)

**Nicolás María de Tolosa (OFM Cap)**
Tolosa (1883-1923)

**Saez, Francisco**
Bilbao (1886-1923)

**Sagredo, Jesús José**
Leintz-Gatzaga (1874-1923)

**Saizarvitoria, Francisco**
Mutriku (1880-1923)

# MENDEURRENAK
## Centenarios

### I. JAIOTZAREN MENDEURRENA
### I. Centenario del nacimiento de

**Ansorena, Iñaki**
Hernani (1923-2015)

**Asiain, Tomás**
Tudela (1923-1989)

**Fidel de Amurrio (OFM Cap)**
Amurrio (1923-2001)

**Matute, Segundo**
Santurtzi (1923-1996)

**Oliden, Patxi**
Orio (1923-2020)

**Otiñano, Jesús**
Donostia (1923-2005)

**Zubeldia, Lurdes**
Hondarribia (1923-2017)

**Vega, José Ramón**
Irun (1923-2023)

### II. HERIOTZAREN MENDEURRENA
### II. Centenario del fallecimiento de

**Garat, Pierre Jean**
Ustaritz (1762-1823)

### II. JAIOTZAREN MENDEURRENA
### II. Centenario del nacimiento de

**Zubiria, José**
Elizondo (1823-1884)

### III. JAIOTZAREN MENDEURRENA
### III. Centenario del nacimiento de

**Gamarra, Manuel de**
Lekeitio (1723-1791)

### V. HERIOTZAREN MENDEURRENA
### V. Centenario del fallecimiento de

**Anchieta, Juan de**
Azpeitia (ca. 1450-1523)



# AURKEZPENA
## Presentación

MUSIKASTE afronta en el presente 2023 su edición número 51. Tras sus bodas de oro, el reto supone continuar cumpliendo los objetivos del festival ejemplificados en el apoyo a creadores e intérpretes, el descubrimiento de su música, con especial apoyo a los compositores de la actualidad.
MUSIKASTE inicia su andadura con un concierto dedicado a Johannes de Anchieta (ca. 1450-1523) en el 500 aniversario de su fallecimiento. Originario de Azpeitia, de quien fuera Maestro de Capilla de los Reyes Católicos escucharemos su obra junto a la de sus contemporáneos. Carlos Mena, contratenor, y el vihuelista Manuel Minguillón serán los encargados de darnos a conocer su obra transcrita para voz y vihuela.
Al día siguiente, el repertorio para voz y piano será el protagonista. Olatz Saitua, Ainhoa Zubillaga e Iñaki Salvador harán un repaso a conocidas melodías de nuestro cancionero arregladas en clave jazzística.
La música de cámara tomará el relevo el viernes día 19, con un variado programa con obras del P. Donostia, Jesús Guridi y dos compositoras: Anita B. Idiartborde y Emma Chacón. La voz de Maite Arruabarrena, el violín de Aitzol Iturriagagoitia y el piano de Susana G. de Salazar serán los encargados de su interpretación.
El sábado la celebración del Kilometroak, organizado por Orereta Ikastola, aunará las voces e instrumentos de las ikastolas de Errenteria, Hendaya y Ziburu junto a Errenteriako Herri Arte Eskola y artistas invitados como Thierry Biscary y Sua Enparantza, bajo guión de Jon Maya y la dirección musical de Maddalen Dorronsoro.
La jornada dominical se iniciará con la tradicional Diana a cargo del grupo municipal de txistularis de Errenteria, que posteriormente ofrecerá un concierto. Ya en la parroquia, Gerardo Rifón interpretará al órgano obras de Manuel Gamarra, Nicolás María de Tolosa y Eduardo Mocoroa. A continuación, se presentará el repertorio litúrgico de Luis de Elizalde. Para finalizar, la Banda de Errenteria interpretará obras de Marcelino Amenabar, Tomás Aragüés, Tomás Asiain, Félix y Julián Lavilla y Florentino Peñafiel.
Mención especial merecen las jornadas pedagógicas, con el estreno de la fábula musical *Maribel Oiloa* en producción de Anitz Musika, y los conciertos en la plaza Xabier Olaskoaga organizados por Errenteriako Herri Arte Eskola.
El 24 de mayo es el turno de la música contemporánea, en formación de trío compuesto por Luis Fernández Castelló al clarinete y David y Carlos Apellániz al cello y piano, respectivamente.
En la siguiente jornada el jazz será el protagonista con la presentación del último trabajo discográfico del pianista Mikel Azpiroz, titulado *Islak*, que estará acompañado por Karlos Arancegui en la batería y Fernando Neira al contrabajo.
El día coral acogerá a formaciones de diversos territorios de Euskalerria. La joven coral vizcaína Akelarre Abesbatza, Suessatio Taldea de Vitoria-Gasteiz, la navarra Barañain Abesbatza y la anfitriona Andra Mari Abesbatza serán las encargadas de dar vida a un variado repertorio coral con obras de Jon Sáenz, Juan García de Salazar, Mariano Jiménez, Urtzi Iraizoz, Laida Otaduy y Xabier Sarasola, entre otros.
Para finalizar, el día sinfónico-coral volverá a cerrar la presente edición. Euskadiko Orkestra y la coral Andra Mari, bajo la dirección de Juan José Ocón, serán las encargadas de dar a conocer un variado repertorio con obras de Félix Ibarrondo, Anita B. Idiartborde, Francisco Escudero, Gabriel Pierné, Miguel González Bastida y Pablo Sorozabal.



# 51 EUSKAL MUSIKAREN ASTEA

2023

# MUSIKASTE

SEMANA DE LA MÚSICA VASCA

MUSIKASTEk, Errenterian ospatzen den euskal musikaren asteak, 51. edizioari ekingo dio 2023an. Urrezko ezteien ondoren, erronka da jaialdiaren helburuak betetzen jarraitzea, besteak beste, sortzaileei eta interpreteei laguntzea, gure konpositoreen musika aurkitzea, antzinako musikatik hasi eta egile klasikoen musikara, egungo konpositoreei laguntza berezia emanez.

MUSIKASTEk Johannes Antxietari (ca. 1450-1523) eskainitako kontzertu batekin hasiko du ibilbidea bere heriotzaren 500. urteurrenean. Jatorriz azpeitiarra, eta Errege Katolikoen Kapera Maisua izan zenaren obra eta haren garaikideena entzungo ditugu. Carlos Mena kontratenorra eta Manuel Minguillón vihuelista arduratuko dira bere ahots eta vihuelarako transkribatutako lana ezagutarazteaz.

Hurrengo egunean, ahots eta pianorako errepertorioa izango da protagonista. Olatz Saituak, Ainhoa Zubillagak eta Iñaki Salvadorrek jazz modura moldatutako gure kantutegiko doinu ezagunen errepasoa egingo dute.

Ganbera-musikak hartuko du lekukoa ostiralean, hilak 19, Aita Donostiaren, Jesus Guridiren lanekin eta, ziur asko, harrituko gaituzten bi emakume musikagileen lanekin: Anita B. Idiartborde eta Emma Chacon. Maite Arruabarrenaren ahotsak, Aitzol Iturriagagoitiaren biolinak eta Susana G. de Salazarren pianoak interpretatuko dituzte obra hauek.

Larunbatean, Kilometroak egitasmoaren barruan, Orereta Ikastolak antolatuta, Errenteria, Hendaia eta Ziburuko ikastolen ahotsak eta instrumentuak batuko dira Errenteriako Herri Arte Eskolarekin eta Thierry Biscary eta Sua Enparantza artista gonbidatuekin batera, Jon Mayaren gidaritzapean eta Maddalen Dorronsororen musika zuzendaritzapean.

Igandeko jardunaldiari hasiera emateko, Errenteriako Udal Txistulari Taldeak ohiko Diana eskainiko du, eta, ondoren, kontzertua eskainiko du Udaleko arkupetan. Parrokian, Gerardo Rifonek Manuel Gamarra, Nicolas Maria de Tolosa eta Eduardo Mocoroaren obrak interpretatuko ditu organoan. Ondoren, Luis de Elizalderen errepertorio liturgikoa aurkeztuko da Mariaren Bihotza Abesbatzaren ahotsen bitartez. Amaitzeko, Errenteriako Bandak Marcelino Amenabar, Tomás Aragüés, Tomás Asiain, Félix eta Julián Lavilla eta Florentino Peñafielen obrak joko ditu.

Aipamen berezia merezi dute jardunaldi pedagogikoek, Anitz Musikaren produkzioan *Maribel Oiloa* fabula musikalaren estreinaldiarekin, eta Errenteriako Herri Arte Eskolak Xabier Olaskoaga plazan antolatutako kontzertuekin.

Maiatzaren 24an musika garaikidearen txanda da, oraingo honetan Luis Fernández Castellók klarinetean eta David eta Carlos Apellanizek txeloan eta pianoan, hurrenez hurren, osatutako hirukotean.

Hurrengo egunean jazza izango da protagonista Mikel Azpiroz pianistaren *Islak* izeneko azken lan diskografikoaren aurkezpenarekin, Karlos Aranceguik baterian eta Fernando Neirak kontrabaxuan lagunduta.

Abesbatzen egunean Euskal Herriko hainbat lurraldetako taldeak izango dira. Bizkaiko Akelarre abesbatza, Gasteizko Suessatio Taldea, Barañain Abesbatza nafarra eta Errenteriako Andra Mari Abesbatza entzun ahal izango ditugu. Jon Sáenz, Juan García de Salazar, Mariano Jiménez, Urtzi Iraizoz, Laida Otaduy eta Xabier Sarasolaren obrak interpretatuko dituzte, besteak beste.

Amaitzeko, egun sinfoniko-koralak amaiera emango dio aurtengo edizioari. Euskadiko Orkestrak eta Andra Mari abesbatzak, Juan José Oconen zuzendaritzapean, askotariko errepertorioa ezagutzera emango dute. Felix Ibarrondo, Anita B. Idiartborde, Francisco Escudero, Gabriel Pierné, Miguel González Bastida eta Pablo Sorozabalen obrak entzun ahal izango dira.

# EGITARAUA programa




MAIATZAK 16, 17, 19, 20, 21 mayo

# MENA, Carlos



Gasteizen jaio zen 1971n. Schola Cantorum Basiliensis ospetsuan ikasi zuen R. Levitt eta R. Jacobsen zuzendaritzapean, eta bertan egin zituen ere Erdi Aroko musika eta opera ikasketak.
M. Corboz, J. López Cobos, P. Steinberg, S. Weigle, P. Goodwin, M. Minkowsky, R. Frübeck de Burgos, O. Dantone, J. Mena, G. Leonhardt, Chr. Coin eta A. Marcon zuzendaritzapean abestu du, eta mundu osoko jaialdi eta aretoetan abestu izan du, hala nola Vienako Musikverein eta Konzerthaus, Bruselako Palais de Beaux Arts, Amsterdamgo Concertgebouw, Salzburgoko Grosses Festspielhaus, Berlingo Philharmonie, Tokyoko Suntory Hall eta City Opera Hall, Los Angeleseko Osaka Symphony Hall, Zipper Hall eta Schönberg Hall, New Yorkeko METeko Alice Tully Hall, Washingtongo Kennedy Center, Sidney Opera House, Mexiko Hiriko Arte Ederrak, Buenos Airesko Colón Antzokia, etab.
50 errezitaldi baino gehiago grabatu ditu Mirare, Deutsche Grammophon, Sony Music, Harmonia Mundi eta IBSrentzat, eta sari ugari eskuratu ditu, hala nola Urrezko Diapasoia eta Pizkundeko CD Compact-a.
Opera eta oratorioaren esparruan, Haendelen *Radamisto* eta *Il Trionfo*, Monteverdiren *L 'Orfeo*, Cageren *Europera 5*, Mozarten *Ascanio in Alba*, Brittenen *A Midsummer Night's Dream* eta *Death in Venice*, Sánchez-Verdúren *El viaje a Simorgh* edo Bachen *Pasioa San Juanen arabera* interpretatu ditu. *Lied* eta garaikideko errepertorioa ere interpretatu zuen, eta J. M.ª Sánchez-Verdú, G. Erkoreka, J. Torres, J. Magrané edo E. Palomar konpositoreen lanak estreinatu ditu. Gaur egun, Alberto Iglesias musikagilearekin lan egiten du hainbat proiektutan.
Schola Cantorum Basiliensis, Real Conservatorio de Música de Madrid eta Salamancako Unibertsitateko Akademiako irakaslea da.

Nacido en Vitoria-Gasteiz (1971), se forma en la prestigiosa Schola Cantorum Basiliensis bajo la dirección de R. Levitt y R. Jacobs, donde realiza asimismo estudios de música medieval y ópera.
Como solista ha cantado bajo la batuta de maestros como M. Corboz, J. López Cobos, P. Steinberg, S. Weigle, P. Goodwin, M. Minkowsky, R. Frübeck de Burgos, O. Dantone, J. Mena, G. Leonhardt, Chr. Coin y A. Marcon, lo que le lleva a cantar en festivales y salas de todo el mundo como Musikverein y Konzerthaus de Viena, Palais de Beaux Arts de Bruselas, Concertgebouw de Ámsterdam, Grosses Festspielhaus de Salzburgo, Philharmonie de Berlín, Suntory Hall y City Opera Hall de Tokyo, Osaka Symphony Hall, Zipper Hall y Schönberg Hall de Los Angeles, Alice Tully Hall del MET de Nueva York, Kennedy Center de Washington, Sidney Opera House, Bellas Artes de Ciudad de México, Teatro Colón de Buenos Aires, etc.
Ha grabado más de 50 recitales para Mirare, Deutsche Grammophon, Sony Music, Harmonia Mundi e IBS, obteniendo numerosos premios como el Diapasón de Oro y el CD Compact de Renacimiento del año.
En el ámbito de la ópera y el oratorio ha interpretado *Radamisto* e *Il Trionfo* de Haendel, *L'Orfeo* de Monteverdi, *Europera 5* de Cage, *Ascanio in Alba* de Mozart, *A Midsummer Night's Dream* y *Death in Venice* de Britten, *El viaje a Simorgh* de Sánchez-Verdú o la *Pasión* según San Juan de Bach. También interpreta repertorio de *lied* y contemporáneo, habiendo estrenado obras de compositores como J. M.ª Sánchez-Verdú, G. Erkoreka, J. Torres, J. Magrané o E. Palomar. Actualmente trabaja estrechamente con el compositor Alberto Iglesias en varios proyectos.
Es profesor en la Schola Cantorum Basiliensis, en el Real Conservatorio de Música de Madrid y en la Academia de la Universidad de Salamanca.

# MINGUILLÓN, Manuel



www.manuelminguillon.com

Madrilen jaioa, Gerardo Arriaga, Jesús Alonso eta Jesús Sánchezekin ikasi zuen, eta gitarra irakasle titulua nahiz Errenazimentuko eta Barrokoko hari pultsatuko instrumentu titulua lortu zituen. Jarraian, Basileara joan zen Hopkinson Smithekin ikastera, eta, ondoren, Eastman School of Music-en beka jaso zuen Rochesterren (New York). Bertan, master bat egin zuen, eta hari pultsatuko antzinako instrumentuak interpretatzeko doktoretza egin zuen Paul O'Dette maisuarekin.
Gabrieli Consort & Players, Monteverdi Choir, English Baroque Soloist, Florum, La Nuova Musica, The Kings Singers, Charivari Agreable, Al Ayre Español, Compañía de Teatro Clásico de España, Nereydas, Vespres d'Arnadí, Impetus, Sevillako Orkestra Barrokoa, Musica Alchemica, Ludovice Ensemble, Accademia del Piacere, La Madrileña, Harmonia del Parnàs, Los Afectos Diversos, Tiento Nuevo, Musica Ficta, Concerto 1700 edo La Grande Chapelle taldeekin kolaboratu du. Ondorioz Europa osoan, Ipar Amerikan eta Australian jo izan du, zuzendari eta bakarlari ospetsuenetako batzuekin batera, hala nola Paul McCreesh, John Eliot Gardiner, Paul O'Dette, Laurence Cummings, Eduardo López Banzo, Carlos Mena, Vivica Genaux, Filippo Mineccia edo María Espada.
Glossa, Pan Classics, Brilliant Classics, Signum Records, Enchiriadis eta IBS Classical zigiluetarako dozena bat baino gehiago diskoetxerentzat grabazioak egin ditu. Duela gutxi bi disko grabatu ditu azken zigilu horretarako, bata – *Per voi ardo* – Carlos Menarekin batera, 2021eko maiatzean argitaratua, eta bestea María Espadarekin batera, 2023ko udaberrian argitaratuko dena.
Gaur egun, Mingui Estudioko irakasle titularra da, eta Collegium Musicum Madrid eta Alma Music Management enpresetako zuzendari artistikoa da.

Nacido en Madrid, estudia con Gerardo Arriaga, Jesús Alonso y Jesús Sánchez, obteniendo tanto el título de profesor de guitarra como el de instrumentos de cuerda pulsada del Renacimiento y Barroco. Seguidamente se traslada a Basilea para estudiar con Hopkinson Smith y, posteriormente, es becado por la Eastman School of Music en Rochester (Nueva York), donde estudia un Máster y realiza un Doctorado en interpretación de instrumentos antiguos de cuerda pulsada con el maestro Paul O'Dette.
Ha colaborado con grupos como Gabrieli Consort & Players, Monteverdi Choir, English Baroque Soloist, Florilegium, La Nuova Musica, The Kings Singers, Charivari Agreable, Al Ayre Español, Compañía de Teatro Clásico de España, Nereydas, Vespres d'Arnadí, Impetus, Orquesta Barroca de Sevilla, Musica Alchemica, Ludovice Ensemble, Accademia del Piacere, La Madrileña, Harmonia del Parnàs, Los Afectos Diversos, Tiento Nuevo, Musica Ficta, Concerto 1700 o La Grande Chapelle, lo que le lleva a tocar por toda Europa, Norteamérica y Australia junto a algunos de los más prestigiosos directores y solistas, como Paul McCreesh, John Eliot Gardiner, Paul O'Dette, Laurence Cummings, Eduardo López Banzo, Carlos Mena, Vivica Genaux, Filippo Mineccia o María Espada.
Tiene más de una docena de grabaciones discográficas para sellos como Glossa, Pan Classics, Brilliant Classics, Signum Records, Enchiriadis e IBS Classical. Recientemente ha grabado dos discos para este último sello, uno –*Per voi Ardo*– junto a Carlos Mena, publicado en mayo de 2021, y otro junto a María Espada, que verá la luz en la primavera de 2023.
En la actualidad es profesor titular en Mingui Estudio y director artístico de Collegium Musicum Madrid y Alma Music Management.



16 maiatza mayo

asteartea - martes 19:00etan

Agustinen komentua

## Unus

| | |
|---|---|
| Johannes de Anchieta | *Conditor alme siderum** |
| | *Domine, non secundum peccata nostra** |
| Diego de Fermoselle (ca. 1460-1521) | *Amor, por quien tí padesco** |

## Duo

| | |
|---|---|
| Alonso de Mudarra (ca. 1510-1580) | *Pavana de Alexandre* |
| Johannes de Anchieta | *En memoria d'Alixandre** |
| Juan del Enzina (1468-1529) | *Una sañosa porfía** |
| Johannes de Anchieta | *Dos ánades, madre** |
| Juan del Enzina | *Levanta Pascual** |

## Tres

| | |
|---|---|
| Luis de Narváez (ca. 1505-1552) | *Fantasia X* |
| Johannes de Anchieta | *Ave Sanctissima Maria** |
| Juan del Enzina | *Triste España sin ventura** |
| Claudin de Sermisy (ca. 1490-1562) | *Tant que vivray** |
| Johannes de Anchieta | *Salva Sancta facies** |

## Quattuor

| | |
|---|---|
| Johannes de Anchieta | *Magnificat sexti toni** |
| Philippe Verdelot (ca. 1475-1552) | *Gloriar mi poss'io donne* |
| | *O felici occhi miei* |

## Quinque

| | |
|---|---|
| Johannes de Anchieta | *Donsella, madre de Dios** |
| Josquin des Prez (ca. 1450-1521) | *Mille regretz** |
| Luis de Narváez | *Canción del Emperador* |
| Johannes de Anchieta | *Con amores la mi madre** |

*Manuel Minguillónen transkripzioak

## Anchieta en cifra

Johannes de Anchieta eta garaikideen musika, ahots eta bihuelarako transkribatua

Juan de Anchietari Omenaldia (ca. 1450-1523)

Música de Johannes de Anchieta y contemporáneos transcrita para voz y vihuela

Homenaje a Juan de Anchieta

**Carlos Mena**, kontratenorra
**Manuel Minguillón**, bihuela

Antzinako musika
Música antigua

# SAITUA, Olatz



Bilbon jaio zen (1967), eta Deustuko Ikas-Ume haur abesbatzako eta Bilboko Koru Elkarteko abesbatza mistoko kide izan zen. Aldi berean, gitarra eta kantu ikasketak egin zituen J. C. Arriaga Kontserbatorioan. Carlo Bergonzirekin kantu ikasketak zabaldu zituen Sienako Chigiana eta Bussetoko Verdiana akademietan, eta K. S. Wilma Lippekin Salzburgoko Mozarteumen, non Opera espezialitatean graduatu zen.
Salzburgoko Landestheater eta Esssseneko Aalto Theater konpainietako kide izan zen 11 denboraldiz. Era berean, Gran Teatre del Liceu-ren hamar produkziotan parte hartu zuen, baita Madrilgo Teatro Real, OLBE, Oviedo, A Coruña, Valladolid, Tenerife, Cosenza, Jesi, Gelsenkirchen, Florencia edo Bonn-eko aretoetan aritu zen. Gilda, Nannetta, Óscar, Olympia, Tytania, Gretel, Marzelline, Susanna, Despina, Zerlina Papagena, Barbarina, Gasparina, Frasquita, Amore eta beste hainbat paper antzeztu ditu, operan zein errepertorio sinfonikoan, Pons, Andrew Davis, Salonen, Mena, Encinar, Víctor Pablo, Haider, De Billy, Nielbecsen, Frühk maisuekin. Besteak beste, honako obra hauek interpretatu ditu: *Exsultate Jubilate*, *Koroatzearen Meza*, Mozarten, Fauréren eta Brahmsen requiemak, Vivaldi eta Poulencen *Gloria*, Fallaren *Maese Pedroren erretaula*, Mahlerren 2. eta 4. sinfoniak, Mendelssohnen *Lobgesang*, Bachen *San Juanen Pasioa* eta *Meza Si minorrean*, Händel-en *Messiah* eta *Das Alexander Fest*, Orff-en *Carmina Burana*, etab.
Hainbat errezitaldi eskaini ditu pianoz eta gitarraz lagunduta, eta grabazio askotan parte hartu du, hala nola Sorozabalen *Juan José*, Intxaustiren *Lide ta Ixidor*, *Carmen*, David del Puerto, Tomás Garbizu, Iñaki Salvador, Aita Donostia, J. M.ª Iparragirre edo Pablo Sorozabalen abestiak. Bilboko Kontserbatorioko kantu irakaslea da.

Nacida en Bilbao (1967), formó parte del coro infantil Ikas-Ume de Deusto y del coro mixto de la Sociedad Coral de Bilbao al tiempo que cursaba los estudios de guitarra y canto en el Conservatorio J. C. Arriaga. Amplió sus estudios de canto con Carlo Bergonzi en las academias Chigiana de Siena y Verdiana de Busseto, y con K. S. Wilma Lipp en el Mozarteum de Salzburgo, donde se graduó en la especialidad de Ópera.
Formó parte de las compañías estables del Landestheater de Salzburgo y del Aalto Theater en Esssen durante 11 temporadas. Participó asimismo en diez producciones del Gran Teatre del Liceu y actuó también en el Teatro Real de Madrid, ABAO, Oviedo, La Coruña, Valladolid, Tenerife, Cosenza, Jesi, Gelsenkirchen, Florencia o Bonn, en los papeles de Gilda, Nannetta, Óscar, Olympia, Tytania, Gretel, Marzelline, Susanna, Despina, Zerlina, Papagena, Barbarina, Gasparina, Frasquita, Amore, etc., tanto en ópera como en repertorio sinfónico con maestros como Pons, Andrew Davis, Salonen, Mena, Encinar, Víctor Pablo, Haider, De Billy, Nielsen, Frühbeck de Burgos, Zedda… Ha interpretado obras como *Exsultate Jubilate*, *Misa de la Coronación*, los réquiems de Mozart, Fauré y Brahms, *Gloria* de Vivaldi y Poulenc, *El retablo de Maese Pedro* de Falla, las 2ª y 4ª sinfonías de Mahler, *Lobgesang* de Mendelssohn, *La Pasión según San Juan* y la *Misa en si menor* de Bach, *Messiah* y *Das Alexander Fest* de Händel, *Carmina Burana* de Orff, etc.
Ha ofrecido innumerables recitales acompañada del piano y la guitarra y participado en múltiples grabaciones, como *Juan José* de Sorozabal, *Lide ta Ixidor* de Intxausti, *Carmen*, canciones de David del Puerto, Tomás Garbizu, Iñaki Salvador, Aita Donostia, J. M.ª Iparragirre o Pablo Sorozabal, y es docente de canto en el Conservatorio de Bilbao.

# Zubillaga, Ainhoa



Donostian jaioa (1964), San Inazio Abesbatzan abesten hasi zen, ondoren Donostiako Orfeoian sartzeko. Edurne Aguerriren zuzendaritzapean kantu ikasketak osatu zituen eta Holandan hobekuntza ikastaroak egin zituen Rita Adams eta Diane Forlanorekin.
Musikverein (Viena), Halle aux Grains (Toulouse), Teatro Real, Auditorio Nacional y Teatro Monumental (Madril), Donostiako Musika Hamabostaldia, A Coruñako Mozart Jaialdia, Nantesko Jaialdia, Cuencako Musika Erlijiosoaren Astean parte hartu izan du, eta Errusia, Letonia, Lyon, Toulouseko Kapitolioa, Viena, Galizia, Balear Uharteak, Bilbo, Euskadi, Asturiasko Printzerria, Galiziako Errege Philarmonia, eta RTVE orkestra ospetsuen aurrean, abestu izan du. Honako artista handi hauekin partekatu du agertokia: Álvarez, Arteta, Bros, Burchuladze, Gavanelli, Gustafson, Hendrick, Jaho, Kunde, Machado, Millgramm, Montagüe, Moreno, Mosuc, Neves, Nuci, O 'Neill, Pieczonka, Prokina, Rucinski, Rydl, Streit edo Zajick, eta Ceccato, Gómez Martínez, Griffiths, Guerrero, Kout, López Cobos, Mena, Víctor Pablo Pérez, Pletnev, Pons, Ros Marbá, So, Traub, Wilson eta abarren gidaritzapean.
Opera-arloan, OLBEren ekoizpenetan, Musika Hamabostaldian, Las Palmaseko opera-denboraldietan, Malagan, Madrilgo Errege Antzokian, Lyongo auditorioan eta Toulouseko Halle aux Grainsen parte hartu izan du.
Errepertorio zabala jorratzen du bai errezitaldietan, bai kontzertu sinfonikoetan eta Oratorioetan. Hainbat disko grabatu ditu zigilu ezberdinetarako, eta bakarlari gonbidatu gisa parte hartzen du antzinako musikako hainbat talderekin.

Nacida en Donostia (1964), comenzó a cantar en la Coral San Ignacio para posteriormente ingresar en el Orfeón Donostiarra. Completó sus estudios de canto bajo la dirección de Edurne Aguerri y realizó cursos de perfeccionamiento en Holanda con Rita Adams y Diane Forlano.
Se ha presentado en el Musikverein (Viena), Halle aux Grains (Toulouse), Teatro Real, Auditorio Nacional y Teatro Monumental (Madrid), Quincena Musical donostiarra, Festival Mozart de A Coruña, Festival de Nantes, Semana de Música Religiosa de Cuenca, etc. ante prestigiosas orquestas, como las nacionales de Rusia, Letonia, Lyon, del Capitolio de Toulouse, sinfónicas de Viena, Galicia, Baleares, Bilbao, Euskadi, Principado de Asturias, Real Philarmonia de Galicia, RTVE… Y compartiendo escenario con grandes artistas como Álvarez, Arteta, Bros, Burchuladze, Gavanelli, Gustafson, Hendrick, Jaho, Kunde, Machado, Millgramm, Montagüe, Moreno, Mosuc, Neves, Nuci, O'Neill, Pieczonka, Prokina, Rucinski, Rydl, Streit o Zajick, y bajo la batuta de maestros como Ceccato, Gómez Martínez, Griffiths, Guerrero, Kout, López Cobos, Mena, Víctor Pablo Pérez, Pletnev, Pons, Ros Marbá, So, Traub, Wilson, etc.
En el campo operístico ha intervenido en producciones de la ABAO, Quincena Musical, temporadas de Ópera de Las Palmas, Málaga, Teatro Real de Madrid, Auditorio de Lyon y Halle aux Grains de Toulouse.
Aborda un extenso repertorio tanto en recitales como en conciertos sinfónicos y Oratorios. Ha grabado varios discos para diferentes sellos y colabora como solista invitada con diversos grupos de música antigua.

# SALVADOR, Iñaki



Donostian jaio zen (1962), eta José Antonio Medina eta Jesús González Alonso piano-jotzaileekin edo Francisco Escudero konpositorearekin ikasi zuen. Musika modernoari eta jazzari dagokionean prestakuntza autodidakta izan zuen.
Estatuko jazz-musikari nagusiekin eta nazioarteko hainbat musikarirekin kolaboratu du, eta hainbat jaialditan eman ditu kontzertuak, besteak beste, Euskal Herriko lau jaialditan –Donostian, Gasteizen, Getxon eta Baionan–, Madrilen, Bukaresten, Quiton eta Guayaquilen, Manchesterren eta Berlinen. Bere musika pianoan aurkeztu zuen New York hirian.
15 disko argitaratu ditu lider gisa eta ehundik gora kolaboratzaile gisa era askotako proiektuetan, nahiz eta bereziki azpimarragarria den Mikel Laboarekin zuen harremana, artista horrekin 25 urtez jarraian lan egin baitzuen.
I. Tete Montoliú Saria eta hainbat sari jaso zituen hainbat jaialditan bakarlari gisa – Donostiako Jazzaldia Saria barne (2020) –, baita *Jazz entre amigos* telebista saio historikoagatik emandakoa ere.
Zinemarako, antzerkirako, telebistarako eta dantzarako musika konposatu du, Max Sarietako finalista izan da birritan, eta Vaivén-Teatro y Música plataformako zuzendarikidea da, Ana Pimenta aktore eta ekoizlearekin batera.
Bartzelonako Taller de Musics eta l'Aula de Música Moderna i Jazz ikastetxeetan, Zarauzko Nazioarteko Jazz Mintegian, Donostiako Udal Musika Eskolan eta Jazzle akademian irakasle izan da, eta, gaur egun, Piano-Jazz irakaslea da Musikenen.

https://vaivenproducciones.com/

Nacido en Donostia (1962), estudió con pianistas como José Antonio Medina y Jesús González Alonso o el compositor Francisco Escudero, si bien se formó de manera básicamente autodidacta en lo referido a la música moderna y el jazz.
Ha colaborado con los principales músicos de jazz nacionales y varios internacionales y ha ofrecido conciertos en múltiples festivales, destacando los cuatro festivales vascos –Donostia, Vitoria-Gasteiz, Getxo y Baiona– así como los de Madrid, Bucarest, Quito y Guayaquil, Manchester o Berlín, entre otros, además de que ha presentado su música a piano solo en la ciudad de Nueva York.
Ha publicado 15 discos como líder y más de un centenar como colaborador en proyectos de diversa índole, si bien es especialmente remarcable su relación con Mikel Laboa, artista con el que trabajó durante 25 años ininterrumpidos.
Ha recibido galardones como el I Premio Tete Montoliú y varios como solista en diversos festivales –incluyendo el Premio Donostiako Jazzaldia (2020)–, además del concedido por el histórico programa de televisión *Jazz entre amigos*.
Ha compuesto música para cine, teatro, televisión y danza, habiendo sido finalista de los Premios Max en dos ocasiones, y es codirector de la plataforma Vaivén-Teatro y Música, junto a la actriz y productora Ana Pimenta.
Ha sido docente en centros como el Taller de Músics y l'Aula de Música Moderna i Jazz de Barcelona, el Seminario Internacional de Jazz de Zarautz, la Escuela Municipal de Música y la academia Jazzle de Donostia, y actualmente es profesor de Piano-Jazz en Musikene.

**17**
maiatza
mayo

asteazkena – miércoles
19:00etan

Madalena Ermita

Mª Magdalenaren lagunak kultur elkartea

## Bihotz bat
Euskal kantak

*Bihotz bat*
*Iruten ari nuzu* (S, p)
*Haurtxo txikia* (Mez, p)
*Goizeko izarra*
*Donostiako hiru damatxo* (Mez, p)
*Amorosa* (p)
*Ume eder bat* / José Mª Iparraguirre (S,z p)
*Itsasoa laino dago* (Mez, p)
*Kattalin*
*Ilargi Eder* (S, p)
*Nik baditut* (Mez, p)
*Ilunabarra*

**Olatz Saitua**, sopranoa
**Ainhoa Zubillaga**, mezzosopranoa
**Iñaki Salvador**, pianoa eta moldaketen egilea

Ahotsa eta pianoa
Voz y piano

# Arruabarrena, Maite



Jaiotzez Errenteriakoa izanik, 1989an Toti dal Monte (Treviso, Italia) Nazioarteko Kantu Lehiaketan 1. saria lortu zuen, eta jarduera liriko garrantzitsu bati ekin zion, hainbat kontzertu-aretotan kantatzera eramango zuena: Madrilgo Teatro Real eta de la Zarzuela, Bartzelonako Liceu, Sevillako Maestranza, Malagako Cervantes, Las Palmaseko Pérez Galdós, Oviedoko Campoamor, Bilboko Euskalduna eta Arriaga, Donostiako Victoria Eugenia eta Kursaal, bai eta Mexiko Hiriko Arte Ederretan, Montpellierreko Théâtre de la Comédie, Parisko Cité de la Musique, Comunale di Treviso eta Rovigo, Messinako Vittorio Emanuele, eta Estrasburgo, Luzerna, Lugano, Cesare Pollini (Padua), Concertgebouw (Amsterdam), Konzerthaus (Viena), Lincoln Center (New York), Gulbenkian eta Centro Cultural de Belem (Lisboa) eta beste hainbat auditorioetan aritu da. Kataluniako Capella Reial taldeko kide izan da eta errepertorio barrokoa eta errenazentista interpretatzen espezializatutako talde askorekin kolaboratu du.
Peter Maag, Sir Neville Marriner, Alberto Zedda, Christopher Hogwood, Claudio Scimone, Iván Fischer, Theodor Guschlbauer, Giuliano Carella, Víctor Pablo Pérez, Miguel Ángel Gómez Martínez, Philippe Herreweghe, Franz Brüggen, Jordi Savall edo Andreas Spering bezalako zuzendari ospetsuen gidaritzapean abestu du, eta grabazioak egin ditu Astrée Auvidis, Accentus, Alia Vox, Naxos, Tritó, Elkar eta Claves zigiluentzat.
Musikene - Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian kantu irakaslea da sortu zenetik.

Natural de Errenteria, en 1989 obtiene el 1er premio en el Concurso Internacional de Canto Toti dal Monte (Treviso, Italia), iniciando una importante actividad lírica que la llevará a cantar en prestigiosas salas de conciertos como Teatro Real y de la Zarzuela de Madrid, Liceu de Barcelona, Maestranza de Sevilla, Cervantes de Málaga, Pérez Galdós de Las Palmas, Campoamor de Oviedo, Euskalduna y Arriaga de Bilbao, Victoria Eugenia y Kursaal de Donostia, así como en el Bellas Artes de Ciudad de México, Théâtre de la Comédie de Montpellier, Cité de la Musique de París, Comunale di Treviso y Rovigo, Vittorio Emanuele de Messina, auditorios de Estrasburgo, Lucerna, Lugano, Cesare Pollini de Padua, Concertgebouw de Ámsterdam, Konzerthaus de Viena, Lincoln Center de New York, Gulbenkian y Centro Cultural de Belem en Lisboa, etc.
Ha sido integrante de la Capella Reial de Catalunya y ha colaborado con numerosos grupos especializados en la interpretación del repertorio barroco y renacentista.
Ha cantado bajo la batuta de prestigiosos directores como Peter Maag, Sir Neville Marriner, Alberto Zedda, Christopher Hogwood, Claudio Scimone, Iván Fischer, Theodor Guschlbauer, Giuliano Carella, Víctor Pablo Pérez, Miguel Ángel Gómez Martínez, Philippe Herreweghe, Franz Brüggen, Jordi Savall o Andreas Spering, y ha realizado grabaciones para Astrée Auvidis, Accentus, Alia Vox, Naxos, Tritó, Elkar y Claves.
Es profesora de canto en Musikene –Centro Superior de Música del País Vasco– desde su creación.

# ITURRIAGAGOITIA, Aitzol



1975ean Eibarren jaioa, Zakhar Bronekin ikasi zuen Madrilgo Reina Sofía Goi Mailako Musika Eskolan, baita Kolja Lessingekin ere Leipzigeko Musikhochschulen, Ingolf Turbanekin Stuttgarten eta Hatto Beyerlerekin Hannoverren. Lublin-eko Henryk Wieniawski eta European Broadcasting Unionen biolinerako lehiaketetan saritua, bakarlari gisa aritu da Dominikar Errepublikako Orkestra Nazionalarekin, Vogtland Philarmonierekin, Mittelsächsischen Philharmonierekin, Euskadiko Gazte Orkestrarekin, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, Euskadiko Orkestrarekin eta Reina Sofía Ganbera Orkestrarekin, Lord Yehudi Menuhinen zuzendaritzapean eta Lorin Maazelekin batera.

Christian Zacharias, Gidon Kremer, Heinz Holliger, José Luis Estellés, Asier Polo, Mariana Sirbu, Marie-Elisabeth Hecker, Edicson Ruiz, Giovanni Bellucci, Kolja Lessing, Andoni Mercero, Marta Zabaleta, Alberto Rosado, Mate Bekavac, David Apellaniz, Luis Fernando Pérez eta Enrique Bagaría bezalako artistekin partekatu du agertokia.

2019an, Enrique Bagaria pianistarekin batera, Debussy, Janáček eta Straussen biolin eta pianorako sonatak biltzen dituen CDa aurkeztu zuen, eta 2020an, IBS Classicsentzako *Fin du Temps*, Messiaen eta Takemitsuren lanekin.

Asia, Latinoamerika eta Espainian eskola magistralak eman ditu, eta, gaur egun, kontzertu-jarduera eta Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian biolin irakasle gisa egiten duen lan pedagogikoa uztartzen ditu..

Nacido en Eibar en 1975, estudió con Zakhar Bron en la Escuela Superior de Música Reina Sofía de Madrid, así como con Kolja Lessing en la Musikhochschule de Leipzig, con Ingolf Turban en la de Stuttgart y con Hatto Beyerle en la de Hannover. Galardonado en los concursos para violín Henryk Wieniawski de Lublin y de la European Broadcasting Union, ha actuado como solista con la Orquesta Nacional de la República Dominicana, la Vogtland Philarmonie, la Mittelsächsischen Philharmonie, la Joven Orquesta de Euskadi, la Orquesta Sinfónica de Bilbao, la Euskadiko Orkestra y la Orquesta de Cámara Reina Sofía bajo la dirección de Lord Yehudi Menuhin y junto con Lorin Maazel.

Ha compartido el escenario con artistas de la talla de Christian Zacharias, Gidon Kremer, Heinz Holliger, José Luis Estellés, Asier Polo, Mariana Sirbu, Marie-Elisabeth Hecker, Edicson Ruiz, Giovanni Bellucci, Kolja Lessing, Andoni Mercero, Marta Zabaleta, Alberto Rosado, Mate Bekavac, David Apellaniz, Luis Fernando Pérez y Enrique Bagaría.

En 2019 presentó, junto al pianista Enrique Bagaría, un CD con sonatas para violín y piano de Debussy, Janáček y Strauss, y, en 2020, *Fin du Temps* para IBS Classics, con obras de Messiaen y Takemitsu.

Ha impartido clases magistrales en Asia, Latinoamérica y España, y actualmente compagina su actividad concertística con su labor pedagógica como profesor de violín en el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene.

# G. de Salazar Ubis, Susana



Gasteizen jaio zen 1972an, eta Jesús Guridi Kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak. Erdi mailako pianoa amaitu ondoren, Basileako Musikhochschule-ren beka jaso zuen, eta P. Efler eta A. Oetikerrekin jarraitu zuen ikasten. *Lied* eta ganbera-musikaren munduarekiko zuen interesak A. Guttmanekin korrepetizioa eta I. Monyghettirekin ganbera ikasketak egitera bultzatzu zuen. Espainiara itzulita, R. Requejo piano-jotzailearekin lanean jarraitu zuen, piano-laguntzaile errepertorioarekin duen lotura sendotuz.
Bere grabazioa, *Paisajes del recuerdo* (Harmonia Mundi, 2006), Carlos Mena kontratenorrarekin eta XX. mendeko euskal musikari eskainia, publikoak eta kritika espezializatuak goraipatu zuten.
Donostiako Kursaalean, Bilboko Euskalduna Jauregian eta Arriaga Antzokian, Gasteizko Principal Antzokian, Salamancako Fonseca Auditorioan, Leongo Auditorioan, Zarzuela Antzokiko *Lied* Zikloan eta Madrilgo Auditorio Nazionalean, Donostiako Musika Hamabostaldian, Errenteriako Musikasten, Sevillako Joaquín Turina Aretoan, Las Palmas Kanaria Handikoko Pérez Galdós Antzokian, Nanteseko Folle Journé Jaialdian, Lisboako Festa da Música Jaialdian eta beste hainbat areto eta jaialditan jo izan du.
Berriki, argitaratu gabeko emakume musikagileen lana ikertu eta interpretatzeko lan garrantzitsua egin du. Lan hori CD formatuan argitaratu zen 2020an, Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin, *Inéditas: la voz invisible de las compositoras* izenburupean.

Nace en Vitoria-Gasteiz en 1972, iniciando sus estudios musicales en el Conservatorio "Jesús Guridi". Tras finalizar el grado medio de piano, es becada por la Musikhochschule de Basilea, continuando su formación con P. Efler y A. Oetiker. Su interés por el mundo del *lied* y de la música de cámara le impulsa a realizar estudios de correpetición con A. Guttman y de cámara con I. Monyghetti. De regreso a España, continúa trabajando con el pianista R. Requejo, afianzando su vínculo con el repertorio de pianista acompañante.
Su grabación *Paisajes del recuerdo* (Harmonia Mundi, 2006) junto al contratenor Carlos Mena y dedicado a la música vasca del s. XX, fue elogiado por el público y la crítica especializada.
Ha tocado en el Kursaal de Donostia, Palacio Euskalduna y Teatro Arriaga de Bilbao, Teatro Principal de Vitoria, Auditorio Fonseca de Salamanca, Auditorio de León, Ciclo de *Lied* del Teatro de la Zarzuela y Auditorio Nacional de Madrid, Quincena Musical Donostiarra, Musikaste en Errenteria, Sala Joaquín Turina de Sevilla, Teatro Pérez Galdós de Las Palmas de Gran Canaria, Festival Folle Journé de Nantes, Festa da Música en Lisboa, etc.
Recientemente ha realizado un importante trabajo de investigación e interpretación de la obra de compositoras inéditas que ha sido editado en formato CD en 2020 con la ayuda del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y el Departamento de Cultura de Gobierno Vasco bajo el título *Inéditas: la voz invisible de las compositoras.*

19
maiatza
mayo

ostirala – viernes
19:00etan

Madalena Ermita

## 1886

José Antonio de Donostia / Lorenzo Ondarra, pianorako transkr. — *Xarmegarria zira*

José Antonio de Donostia — *Orai banuazü herriti*
*Oraingo aldian*
*La lune blanche*

José Antonio de Donostia / Lorenzo Ondarra, pianorako transkr. — *De bon matin me suis levé*

Jesús Guridi — *Asiko naz*
(de *XXII Canciones del Folk-Lore Vasco, nº 14, canción de ronda*)
*Neure maitia*
*Le matin*
*Otra vez la primavera*
(de *Seis canciones infantiles, II*)
*¡Cómo quieres que adivine!*
(de *Seis canciones castellanas, V*)

Anita B. Idiartborde — *Trópicos* op. 13* (violín y piano)
- *Entre palmas*
- *Negras charlando*
- *Pájaro mosca*
- *Pájaro cardenal desterrado*
- *Canto*
- *Canción de cuna*
- *Brisa*
- *La paz en la selva virgen*
- *Danza*

Anita B. Idiartborde — *Lied* (voz y piano)
(de op. 26, *I*)
*Au potager**
(de *Plain air, II* op. 21)

Emma Chacón — *Rasgueos* (violín y piano)
- *Nº 1* op. 67
- *Nº 2* op. 68
- *Nº 3* op. 69

*Evocaciones españolas Nº 1* op. 75

Emma Chacón — *No llores…!* op. 122 (voz y piano)

Emma Chacón — *Visión de ensueño* op. 130 (voz, violín y piano)

*Estreinaldi nagusia

**Maite Arruabarrena**, mezzosopranoa
**Aitzol Iturriagagoitia**, biolina
**Susana G. de Salazar Ubis**, pianoa

Ganberako musika – Lied
Música de cámara - Lied



**20**
maiatza
mayo

larunbata – sábado
19:00etan

Lekuona Fabrika

## Adaxka berriak

*Nere etchea*
*Iru xito*
*Lili eder bat*
*Txakur txiki*
*Izarren hautsa*
*Baratzeko pikuak*

Errenteriako Orereta Ikastolako ikasleak
Hendaiako Gure Ikastolako ikasleak
Ziburuko Kaskarotena Ikastolako ikasleak

Errenteriako Herri Arte Eskola
Vanesa Castaño, Urko Mitxelena, Elene Carreto, irakasleak

Thierry Biscary, Sua Enparantza, abeslari gonbidatuak

Imanol Iribarren, pianoa
Fabien Durou, tronpeta
Harkaitz Bastarrika, baxua
Ander Zulaika, perkusioa

Jon Maya Sein, gidoia
Maddalen Dorronsoro, zuzendari musikala

Kilometroak

# RIFÓN, Gerardo



Donostian jaio zen 1962an, eta Mariaren Bihotzaren Eskolanian hasi zuen bere ibilbide musikala, Antonio Sierra Valgañón zuzendari klaretarraren eskutik.
Ondoren, bere jaioterriko kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak, eta Baionako kontserbatorioan amaitu zituen Mme Bernadette Carrau organo irakaslearekin. 1995ean, epaimahaiak aho batez, karrera amaierako *Medaille d 'Or* eman zion.
1980tik Donostiako Gros auzoko San Inazio Parrokiako organista titularra da.
Euskal Herriko zein nazioko hainbat ahots eta instrumentu talderekin kolaboratzen du, eta Donostiako Orfeoiarekin lotura estua duela nabarmentzen da.

Nacido en San Sebastián en 1962, comienza su trayectoria musical en la Escolanía del Corazón de María de la mano de su director, el claretiano Antonio Sierra Valgañón.
Posteriormente inicia los estudios musicales en el conservatorio de su ciudad natal, concluyéndolos en el de Baiona con la profesora de órgano Mme. Bernadette Carrau. En 1995 obtiene, por unanimidad del tribunal, la *Medaille d'Or* de fin de carrera.
Desde 1980 es organista titular de la Parroquia de San Ignacio del barrio donostiarra de Gros.
Colabora asiduamente con numerosas formaciones vocales e instrumentales, tanto vascas como nacionales, destacando en este aspecto su estrecha vinculación con el Orfeón Donostiarra.

# Mariaren Bihotza Abesbatza



50 ahots nahasiz osatutako abesbatza, horietako batzuk Donostiako Mariaren Bihotzaren Eskolaniatik etorritakoak, 1962an Antonio Sierra Valgañón klaretar erlijiosoak sortutako taldea. 2003an hil zenetik, abesbatzak hainbat zuzendari izan ditu, hala nola Juan Mari Ulloa, Miren Urbieta-Vega, Francisco José Ríos-López eta Saioa Zuaznabar.
Gaur egun, Alain Ayerdi Gurpeguik zuzentzen du, Musikenen tronboian lizentziaduna eta Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan kantuan tituluduna. 2015etik Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Bandako zuzendaria da, eta, era berean, 2013tik Irungo Kontserbatorioko tronboi, bonbardino eta tubako irakaslea da.
Abesbatzak estatuko eta nazioarteko hainbat ziklo eta lehiaketatan parte hartu du, eta kontzertuak eman ditu Lyongo Auditorioan, Vienako Sissi Emperatriz gazteluan, Erromako Vatikanoan eta Santa Maria Nagusian, Zaragozako San Carlos Borromeo Errege Seminarioan eta Santo Domingo de la Calzada Katedralean, besteak beste. Donostiako txistulari bandarekin eta Gerardo Rifón, Óscar Candendo eta Arkaitz Mendoza organistekin kolaboratu ohi du.
Nabarmentzekoak dira Zaragozako Pilarreko Basilikan kantatutako Abendualdiko Mezan parte hartu izana, Juan San Martin organistaren organoarekin batera, eta Fernando Prado Ayuso Gotzain Jaunaren Ordenazioaren ospakizun-mezan, Donostiako Artzain Onaren Katedralean, 2022ko abenduan.

Coral compuesta por 50 voces mixtas, algunas de ellas procedentes de la Escolanía del Corazón de María de Donostia, agrupación fundada en 1962 por el religioso claretiano Antonio Sierra Valgañón. Desde su fallecimiento en 2003, el coro ha contado con varios directores, tal es el caso de Juan Mari Ulloa, Miren Urbieta-Vega, Francisco José Ríos-López y Saioa Zuaznabar.
Hoy en día la dirección recae en manos de Alain Ayerdi Gurpegui, licenciado en trombón por Musikene y titulado en canto por el Conservatorio "Francisco Escudero" de Donostia. Director de la Banda de la Asociación de Cultura Musical de Errenteria desde 2015, es, a su vez, profesor de trombón, bombardino y tuba en el Conservatorio de Irun desde 2013.
El coro ha participado en distintos ciclos y concursos nacionales e internacionales, habiendo dado conciertos en el Auditorio de Lyon, el castillo de Sissi Emperatriz en Viena, el Vaticano y Santa María la Mayor en Roma, el Real Seminario de San Carlos Borromeo de Zaragoza y la Catedral de Santo Domingo de la Calzada, entre otros. Colabora habitualmente con la banda de txistularis de Donostia y con organistas como Gerardo Rifón, Óscar Candendo y Arkaitz Mendoza.
Destaca su participación en la Misa de Adviento cantada en la Basílica del Pilar de Zaragoza, con acompañamiento al órgano del organista D. Juan San Martín, y en la misa de celebración de la Ordenación del Obispo Monseñor Fernando Prado Ayuso, en la Catedral del Buen Pastor de Donostia en diciembre de 2022.

# ERRENTERIAKO UDAL TXISTULARI TALDEA

## BANDA MUNICIPAL DE TXISTULARIS DE ERRENTERIA



Errenteriako Udal Txistulari talde berria 2003ko ekainean eginiko oposaketen ondoren sortu zen. Txistu taldea honako hauek osatzen dute: Xabier Vesga (1. txistua eta zuzendaria), Olatz Oliveri (2. txistua), Josu Izagirre (silbotea) eta Iñaki Letamendia (atabal). Txistu taldeak eginkizun desberdinak ditu: igandero herriko auzo desberdinetan bere hots gozoaz esnatzen gaituzte, hilean behin kontzertua eskaintzen dute Udaletxeko arkupetan, Inauterietako diana goiztiarrak, korporazioak, San Juan bezperako aurreskua, Madalenetako prozesioak, buruhandi eta erraldoiak, eta abar luze bat. Ekintza horietaz gain, herriko beste ekintza eta festetan parte hartzen du. Gainera, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzen du beste herrialdetako udal txistu eta txistulariekin batera.

La actual Banda Municipal de Txistularis de Errenteria se formó en 2003 tras la celebración de oposiciones, empezando su andadura el mes de julio. El grupo de txistus lo componen las siguientes personas: Xabier Vesga (txistu 1º), Olatz Oliveri (txistu 2º), Josu Izagirre (silbote) e Iñaki Letamendia (atabal). La banda de txistularis tiene varias funciones: todos los domingos tocan la diana por los barrios de Errenteria, una vez al mes ofrecen un concierto en la plaza del Ayuntamiento, diana de carnavales, corporaciones, aurresku de la víspera de San Juan, procesión de Magdalenas, gigantes y cabezudos, etc. Además de estas actividades, también toma parte en otros actos y fiestas de Errenteria. Asimismo, participa en los actos organizados por Euskalerriko Txistulari Elkartea, con txistularis de otros pueblos y ayuntamientos.

# ERRENTERIAKO MUSIKA BANDA | BANDA DE ERRENTERIA



2014ean Errenteriako Musika Bandak 150 urte bete zituen. 1864. urtean sortua, historian zehar izen ezberdinak jaso izan ditu: "Sociedad Filarmónica" (1864) eta Udal Musika Banda (1923), horrela 1948. urtean orain duen izena hartu zuen. Bandaren zuzendaritza Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiria, José Luis Mate edo Aitor Mitxelena Rubioren ardurapean egon da; eta zuzendari gonbidatu gisa, M. Lorenzo de Reizábal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu edota J.M. Guezala. Hainbat sari jaso izan ditu eta Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu zuen (1995 eta 1998an), Musikasten 1995etik egun arte; bai eta Oskorri taldearekin 2008 eta 2014ean. Nazioarte mailan eskaini izan ditu emanaldiak, Bordelen, Lousadan-Oporton (2002) edo Pariseko "La Cigale" antzokian (2010). 1996. urtetik Musika Banden Alardea antolatzen du. 2012an, Nazioarteko Konposizio Lehiaketa antolatu zuen "Musikagileak" elkartearekin batera. ACNUR, Siriako gerrateko kaltetuen edo bestelako kaltetuen aldeko kontzertu solidarioak ere antolatu izan ditu. 2016 urtean bere ibilbideagatik UPV-Orfeón Donostiarra saria jaso zuen. Gaur egun Alain Ayerdi da EMKE-ko zuzendaria.

Barakaldoko Zigor Abesbatzako zuzendaria, Jesús Guridi Kontserbatorioko Orkestrako zuzendari laguntzailea eta Euskal Kamerata Ganbera Orkestrako zuzendaria izan da. Jesús Guridi eta Oiasso Novis instrumentu-taldeak ere askotan zuzendu ditu, biak musika garaikidearen interpretazioan espezializatuak.

Bigarren Hezkuntzako irakaslea izan da Musika espezialitatean, Bilboko Udal Bandako zuzendari gonbidatua, Bergarako Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoko zuzendaria, Bilboko Kontserbatorioko Orkestrako zuzendaria eta J. C. Arriaga Kontserbatorioko zuzendaria.

Konpositore gisa, obra ugari idatzi ditu hainbat instrumentu-talderentzat, elektroakustikarentzat, orkestrarentzat, etab. 1996an, BBK Fundazioak musika-konposizioari laguntzeko beka bat eman zion, eta horri esker idatzi zuen *Concierto para clarinete y orquesta* lana.

Bere obrak musika elektroakustikoko zikloetan eta Gasteiz, Alacant, Cuenca, Granada eta antzeko jaialdietan programatu dira.

Nacida en Bilbao en 1971, inició sus estudios musicales en el Conservatorio J. C. Arriaga de la mano de J. A. Hontoria, R. Castro y J. Cordero. Posteriormente estudia Composición e Instrumentación en el Conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz con Carmelo A. Bernaola y Antonio Lauzurika, así como música electroacústica con Alfonso García de la Torre.

Estudió dirección de orquesta en el Conservatorio Superior de Madrid con E. García Asensio y F. García Nieto. Asimismo, amplió sus conocimientos de la mano de Juanjo Mena, Johan Duijck y László Heltay en diversos cursos internacionales y clases magistrales.

Ha sido directora del Coro Zigor de Barakaldo, directora asistente de la Orquesta del Conservatorio Jesús Guridi y directora de la Orquesta de Cámara Euskal Kamerata. También ha dirigido en numerosas ocasiones a los conjuntos instrumentales Jesús Guridi y Oiasso Novis, ambos especializados en la interpretación de música contemporánea.

Ha sido profesora de Enseñanza Secundaria en la especialidad de Música, directora invitada de la Banda Municipal de Bilbao, directora de la Orquesta Sinfónica de la Escuela de Música de Bergara y de la Orquesta del Conservatorio de Bilbao, además de directora del mismo centro.

Como compositora, ha escrito numerosas obras para diferentes conjuntos instrumentales, electroacústica, orquesta, etc. En 1996 la Fundación BBK le concedió una beca de ayuda a la composición musical, gracias a la que escribió su *Concierto para clarinete y orquesta*.

Sus obras han sido programadas en ciclos de música electroacústica y festivales como los de Vitoria, Alicante, Cuenca, Granada, etc.

# AZPIROZ, Mikel

AZPIROZ, Mikel

http://mikelazpiroz.com/

Mikel Azpiroz Garmendia (Donostia, 1971) sei urte zituela hasi zen pianoan, eta Donostiako Kontserbatorioan musika klasikoko ikasketak egin ondoren, jazz eta bluesera bideratu zen. Industria-ingeniaritzan lizentziatu bazen ere, beti izan du musikarekiko grina, eta, horregatik, interpretatzaile, konpositore eta ekoizle gisa ibilbidea garatu du, bai bere proiektuetan, bai beste artista batzuekin lankidetzan.

1995ean Lau Behi taldean sartu zen eta hurrengo urtean Parafünk taldearekin kolaboratzen hasi zen. 2006an Elkano Browning Cream proiektua sortu zuen. Hirukote horretan Hammond organoa interpretatzen du eta zortzi album argitaratu ditu orain arte.

Aldi berean, The Waifs, Duncan Dhu, Negu Gorriak, Triz3ps eta Travellin' Brothers taldeekin kolaboratu du, baita Jabier Muguruza, Mikel Erentxun, Anari, Xabier Montoia, Txuma Murugarren, Fermin Muguruza, Imanol, Anje Duhalde eta Elena Setien bakarlariekin ere.

Halaber, bakarlari gisa hiru disko argitaratu ditu: *Gaua* (2013), *Zuri* (2016) eta *Islak* (2020).

Mikel Azpiroz Garmendia (Donostia, 1971) se inició en el piano a los seis años de edad y sus estudios de música clásica en el Conservatorio de San Sebastián derivaron pronto hacia el jazz y el blues. Aunque se licenció en ingeniería industrial, siempre tuvo clara su pasión por la música, por lo que ha ido desarrollando su trayectoria como intérprete, compositor y productor tanto en proyectos propios como en colaboraciones con otros artistas.

En 1995 entró a formar parte del grupo Lau Behi y, al año siguiente, inició sus colaboraciones con el grupo Parafünk. En 2006 crea el proyecto Elkano Browning Cream, trío en el que interpreta el órgano Hammond y con el que ha publicado ocho álbumes hasta la fecha.

Paralelamente, ha colaborado con otros grupos como The Waifs, Duncan Dhu, Negu Gorriak, Triz3ps y Travellin' Brothers, y con solistas como Jabier Muguruza, Mikel Erentxun, Anari, Xabier Montoia, Txuma Murugarren, Fermín Muguruza, Imanol, Anje Duhalde o Elena Setién.

Asimismo, ha publicado tres trabajos discográficos como solista: *Gaua* (2013), *Zuri* (2016) e *Islak* (2020).

BELLO PORTU, Javier

# BELLO PORTU, Javier

Zuzendari eta musikagile gipuzkoarra Tolosan 1920an jaioa. Piano, harmonia eta konposizio ikasketak hasi ondotik, Eduardo Mocoroa, Ignacio Mocoroa eta Felipe Gorritirekin osatu zuen prestakuntza instrumentala. Filosofia eta Letretako ikasketak egin zituen Madrilen, eta han Baroja familia ezagutu zuen. Musikaren estetikari zegokionez, funtsezkoa izan zen Barojatarren eragina. 1943an, Tolosara itzulita, Felipe Gorriti Eskolania sortu zuen, eta harekin batera Espainiaren eremu handi batean barrena ibili zen, baita Frantziako hiri askotan ere, euskal musikagile askoren lanak ezagutarazten. Parisko Kontserbatorioan, Sienako Chigiana Akademian eta Salzburgon jarraitu zituen orkestra-zuzendaritzako ikasketak, von Karajan, Dixon eta Leopoldo Hagesekin. Donostiako Orkestra Sinfonikoaren zuzendari titularra izan zen, Zaragozakoarena eta Santa Cecilia orkestrarena (1963-1983). Besteak beste, Salzburgoko Mozarteumeko orkestrarekin, Madrilgo eta Bilboko sinfonikoekin eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin aritu zen elkarlanean. Donostiako Easo Abesbatza eta Baionako Euskal Herriko Korua ere zuzendu zituen.

1971z geroztik, Loiolako Nazioarteko Jaialdiaren zuzendari artistikoa izan zen, eta Euskal Operaren Adiskideen Elkartearen ohorezko Presidentea, eta Euskal Herriko Txistularien Elkartearen presidentea ere izan zen.

Artezalea eta literaturazalea zen eta zenbait lan idatzi zituen txistuari, Felipe Gorriti, Manterola eta Santestebani buruz, Gipuzkoako musikari buruz eta Pío Barojaren musikaren gaineko ideiei buruz. 2001ean, Aus Art Records disketxeak hainbat disko argitaratu zituen Bello Portuk zuzendutako Gorriti, Ledesma, Manterola eta Xabier Muniberen lanekin.

Sortzearen ikuspegitik, nahiz eta lan askorik ez konposatu, haren lanak garrantzitsuak dira. Aipagarriak dira korurako sortutako *El llanto de Zalacain*, *Soule* eta *Pays Basque* koru triptikoa. *Carnaval de Lanz* suite sinfonikoa ere nabarmendu beharra dago, baita Iparragirrek abesbatzarako egindako kantuen egokitzapena ere. Javier Bello Portu euskal musikaren erreferenteetako bat izan da azken hamarraldiotan. Donostian hil zen 2004ko otsailean.

Director y compositor guipuzcoano nacido en Tolosa en 1920. Tras iniciar los estudios de piano, armonía y composición con Eduardo e Ignacio Mocoroa y Felipe Gorriti, completa su formación instrumental con César Figuerido en San Sebastián. Cursa estudios de Filosofía y Letras en Madrid, donde contacta con la familia Baroja, cuya influencia será fundamental en su estética musical. Cuando en 1943 vuelve a Tolosa, crea la Escolanía Felipe Gorriti y con ella recorre gran parte de España y muchas ciudades de Francia difundiendo el repertorio de compositores vascos. Continúa sus estudios de dirección de orquesta en el Conservatorio de París, en la Academia Chigiana de Siena y en Salzburgo con von Karajan, Dixon y Leopoldo Hages. Ha sido director titular de la Orquesta Sinfónica de San Sebastián, de la de Zaragoza y de la Orquesta Santa Cecilia (1963-1983). Ha colaborado con formaciones como la Orquesta del Mozarteum de Salzburgo, las sinfónicas de Madrid y Bilbao, o la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Dirigió también el Coro Easo de San Sebastián y el Coro del País Vasco de Bayona.

Fue director artístico del Festival Internacional de Loyola desde 1971, Presidente de honor de la Asociación de Amigos de la Ópera Vasca y presidente de la Asociación de Txistularis del País Vasco.

Amante del arte y la literatura, es autor de diversos escritos musicales sobre el txistu, Felipe Gorriti, Manterola y Santesteban, la música en Gipuzkoa o las ideas musicales de Pío Baroja. En 2001 el sello discográfico Aus Art Records publicó varios discos con obras de Gorriti, Ledesma, Manterola y Xabier Munibe dirigidas por Bello Portu.

Desde el punto de vista de la creación, a pesar de no componer gran cantidad de obras, sus composiciones son notables. Destaca su producción para coro con obras como *El llanto de Zalacain*, *Soule* y el tríptico coral *Pays Basque*. Cabe también destacar la suite sinfónica *Carnaval de Lanz*, así como la adaptación de canciones de Iparraguirre para coro. Javier Bello Portu ha sido uno de los referentes de la música vasca de las últimas décadas. Falleció en San Sebastián en febrero de 2004.

BERNAOLA, Carmelo

## BERNAOLA, Carmelo

1929an jaio zen Otxandion (Bizkaia). Medina de Pomar-en hasi zituen musika-ikasketak, eta gero Burgosen eta Madrilgo Kontserbatorioan sakondu zituen. Bertan Konposizioko Lehenengo Saria eta Ezohiko Saria irabazi zituen 1958an. 1959an, Erroma Saria irabazi zuen, eta bertan Petrassi eta Panni-rekin lan egin zuen; baita Maderna (Darmstadt-en) eta Celibidache, Tansman eta Jolivet-ekin ere.
1962an Sari Nazionala irabazi zuen eta 1967an Juventudes Musicales Saria. Errekonozimendu ugari jaso zituen: Musikako Sari Nazionala, San Fernandoren Arte Ederretako Errege Akademiako Akademikoa izan zen, Madrilgo Udaletxeko Meritu Artistikoaren Domina jaso zuen eta baita Sabino Arana Saria ere.
Madrileko Kontserbatorioko irakaslea izan zen eta Gasteizeko Jesús Guridi Musika Eskolako zuzendaria.
Kamera musika eta sinfonikoaz gain, irrati, telebista, antzerki eta zinemarako obra ugari idatzi zituen.
Madrilen zendu zen 2002ko ekainaren 5ean.

Nació en 1929 en Otxandio (Bizkaia). Comenzó sus estudios musicales en Medina de Pomar ampliándolos después en Burgos y en el Conservatorio de Madrid. Allí obtuvo el Primer Premio de Composición y el Premio Extraordinario de Composición en 1958. En 1959 ganó el Premio Roma, ciudad en la que trabajó con Petrassi y Panni. En Darmstadt trabajó con Maderna y partició en cursos impartidos por Celibidache, Tansman y Jolivet.
En 1962 ganó el Premio Nacional y en 1967 el Premio Juventudes Musicales. Recibió numerosos reconocimientos: Premio Nacional de Música, fue Académico de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, recibió la Medalla al Mérito Artístico del Ayuntamiento de Madrid y el Premio Sabino Arana.
Fue profesor del Conservatorio de Madrid y director de la Escuela de Música Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz.
Además de música de cámara y sinfónica, escribió numerosas obras para radio, televisión, teatro y cine.
Falleció en Madrid el 5 de junio de 2002.

CHACÓN, Emma

## CHACÓN, Emma

Bartzelonan jaio zen, 1886an. Musika ikasketak bere jaioterrian egin zituen. Pianoa hobetzeko ikasketak Enrique Granadosekin egin zituen, eta harmonia, kontrapuntu, fuga eta konposiziokoak José Rivera Miró-rekin. Piano-jotzaile gisa ibilbide goiztiarra egin zuen. 1912tik aurrera Bilbon garatu zuen bere musika jarduera, bereziki konpositore gisa. Piano, ahots eta piano, ganbera eta musika erlijiosorako obra asko egin zituen, baita *La jaula de oro* hiru ekitaldiko opereta ere. Bere lanak autoedizio gisa argitaratu zituen, Ediciones *Impulso* izenarekin. Bilbon hil zen 1972an.

Nace en Barcelona en 1886. Realizó estudios musicales en su ciudad natal, siendo discípula de Enrique Granados en perfeccionamiento del piano y de José Rivera Miró en armonía, contrapunto, fuga y composición. Desarrolló una temprana carrera como pianista. A partir de 1912 desarrolla su actividad musical en Bilbao, especialmente como compositora.
Es autora de un buen número de obras para piano, canto y piano, música de cámara, música religiosa, así como de la opereta en tres actos *La jaula de oro*. Publicó sus obras como autoediciones bajo el nombre de Ediciones *Impulso*. Fallece en Bilbao en 1972.

DONOSTIA, José Antonio de

## DONOSTIA, José Antonio de

1886an jaio zen, Donostian. Izen laikoa José Gonzalo Zulaica Arregui zuen. Gaztetatik euskal musikaren alde egin zuen lan handiari esker, *Aita Donostia* izendatu zuten.
Ismael Echazarra izan zuen konposizioko lehen maisu, Lekarozko Ikastetxean ikasle zela. Bernardo de Gabiolarekin ikasten jarraitu zuen Donostian eta Adrià Esquerrárekin Bartzelonan.
1920an eta 1921ean, beregan eragin handia izan zuen Eugène Coolsekin ikasi zuen Parisen.
Teknika zaindu eta modernoz musika sakratuari arreta berezia eskaini bazion ere, orfeoirako euskal musikak eta pianorako *Euskal Preludioek* izan zuten arrakastarik handiena.
Egin zituen lan etnomusikologikoengatik, euskal folklorearen eta beste hainbat gairen erakusle sakona bihurtu zen.
Hamabi ale argitaratu dira bere musika lanekin eta beste bederatzi ale musika eta literatur-lanekin, horien artean *Cancionero vasco* bilduma. Genero guztietako musika-lanak idatzi zituen eta *lied*-partitura ugari sortu zituen katalanez, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz. Lekarozen hil zen 1956 urtean.

Nació en 1886 en San Sebastián. Su nombre laico era José Gonzalo Zulaica Arregui. Merced a la gran tarea que realizó desde su juventud por la música vasca, pasó a ser nominado popularmente *Aita Donostia*. Tuvo como primer maestro de composición a Ismael Echazarra, durante su estancia de estudiante en el Colegio de Lecároz. Continuó estudios con Bernardo de Gabiola en San Sebastián y con Adrià Esquerrá en Barcelona.
En 1920 y 1921 estudió en París con Eugène Cools, quien dejó en él una gran huella. Aunque prestó una atención especial a la composición de música sacra con una técnica depurada y moderna, se popularizaron más sus partituras orfeónicas vascas y sus *Preludios Vascos* para piano.
Sus trabajos etnomusicológicos le convirtieron en un profundo expositor de teorías sobre el folklore vasco y otros temas musicológicos. Su obra musical ocupa doce tomos editados y su obra literario-musical abarca nueve tomos, en los que está incluído su *Cancionero vasco*. Su patrimonio musical abarca todos los géneros y entre ellos compuso muchas partituras de *lied* en catalán, castellano, francés y euskera. Falleció en Lecároz en 1956.

## ECHEVERRÍA, Jesús

23 urterekin Donostiako Ganbera Orkestra sortu zuen. Vienako kontserbatorioan Julius Kalmar-ekin ikasi zuen eta beranduago Londoneko Royal Academy of Music-en Colin Davis eta George Hurst izan zituen irakasle. 1988an Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin lankidetzan hasi zen, eta 1989an Euskadiko Orkestrarekin aritu zen estraineko aldiz. Londonen egon zen garaian The European Sinfonia sortu zuen.
Orkestra ugari zuzendu ditu, beste batzuen artean Errusia eta Letoniakoa, eta Espainia, Japon eta Polonian zehar birak egin ditu. Orkestrako Ikasketen koordinatzaile gisa Musikeneko Orkestra Sinfonikoarekin egitasmo ugari garatu ditu. Opera eta zarzuela zuzentzen ditu maiz.
Jesús Echeverría musikagile aipagarria da. Agustín González Acilu, Francisco Escudero, Tomás Marco eta Cristóbal Halffter-ekin ikasi zuen eta sari ugari irabazi ditu, esate baterako Nazioarteko Pablo Sorozabal Konposizio Lehiaketa (1999), Joaquín Turina Saria, edo Ciutat d´Alcoi-eko Komposizio Saria (2000).
Gaur egun, Musikene – Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko analisi ikasketetako irakaslea da. 2015-16 denboralditik Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendaria da.

A los 23 años funda la Orquesta de Cámara de Donostia. Estudia dirección de orquesta en el Conservatorio de Viena con Julius Kalmar, y más tarde, en la Royal Academy of Music de Londres con Sir Colin Davis y George Hurst. En 1988 comienza su colaboración con la Orquesta Sinfónica de Navarra y en 1989 debuta con la Euskadiko Orkestra. Durante su estancia en Londres funda The European Sinfonia.
Ha dirigido numerosas orquestas, entre ellas las nacionales de Rusia y Letonia, en giras por España, Japón y Polonia. Ha realizado varios proyectos con la Orquesta Sinfónica de Musikene, en calidad de Coordinador de Estudios Orquestales. Además, dirige habitualmente ópera y zarzuela.
Jesús Echeverría es también un destacado compositor. Formado con Agustín González Acilu, Francisco Escudero, Tomás Marco y Cristóbal Halffter, ha obtenido numerosos premios, entre los que destacan el Premio Internacional de Composición Pablo Sorozabal (1999), el Premio Joaquín Turina o el de Composición Ciutat d'Alcoi (2000).
Actualmente, realiza su labor docente como profesor de análisis en Musikene, Centro Superior de Música del País Vasco. Desde la temporada 2015-16 es director adjunto de la Orquesta Sinfónica de Navarra.

## ELBERDIN, Josu

http://elberdin.com/

1976an jaio zen Pasaian (Gipuzkoa). Pianoa, kantua eta harmonia ikasi ditu. Gizarte Diplomatua da EHUn. Pasaiako Udal Musika Eskolan musika irakasten du, hainbat abesbatza zuzentzen ditu eta Trintxerpeko (Gipuzkoa) Karmengo Ama parrokiako organista da.
Haurren koru musikaren inguruko ikastaroak eskaini izan ditu. Hainbat abesbatza lehiaketatan sari ugari lortu ditu eta Tolosako Abesbatzen Lehiaketarako enkarguak jaso izan ditu, bai eta hainbat herrialdetako abesbatzenak ere.
Bere jarduera haurrentzako musikan eta, bereziki, abesbatzentzako musikan oinarritzen bada ere, musika sinfoniko, pop-rock edo musika instrumental generoetako obra ugari idatzi ditu.

Nace en Pasaia (Gipuzkoa) en 1976. Ha realizado estudios de piano, canto y armonía. Es también Diplomado Social por la UPV. Se dedica profesionalmente a la enseñanza musical en la Escuela Municipal de Música de Pasaia, la dirección de varios coros y es organista de la parroquia de Nª Sra. del Carmen en Trintxerpe (Gipuzkoa).
Imparte de forma regular cursos relacionados con la música coral infantil. Ha obtenido premios en diversos concursos corales y ha recibido encargos tanto del Certamen de Masas Corales de Tolosa como de un progresivo número de corales de diversos países.
Si bien su música está centrada en el ámbito infantil, y en general en la música coral, cuenta también con una importante producción de obras de carácter sinfónico, pop-rock o instrumental.

## ELIZALDE, Luis

Zangozan jaio zen 1940an. Estanislao Goñi herriko organistarekin hasi zen musika ikasten eta ondoren Donostiako Kontserbatorioan pianoko ikasketak egin zituen Iraolarekin. Erromako Musika Sakratuko Institutu Pontifizioan Organoan diplomatu zen; D. Bartoluccirekin konposizioa eta H. Anglesekin musikologia ere ikasi zituen. Geroago, Madrilen klabea landu zuen Genoveva Galvez-ekin, bai eta antzinako musikaren interpretazioa ere Innsbruck eta Pistoian (Italia). *Tesoro Sacro Musical* eta *Melodias* aldizkarien zuzendaria izan zen. Musika Sakratua eta Pedagogia Musikaleko Goi Mailako Ikastetxeko zuzendaria eta organo irakaslea izan zen. Apaiz klaretarra izanik, 1986an Potosí Iparraldean daukaten misio lekura joan zen bizitzera. Handik itzuli zenean Donostian finkatu zuen bere egoitza eta San Inazio Elizako apaiz lagunkidea da. Obra erlijioso asko idatzi zituen, baita abestiak eta doinu desberdinetan oinarritutako harmonizazioak, *Misa Andina* obra aipa dezakegu, Bolibiako folklorean oinarritutakoa. Bestalde, musikaren pedagogia arloan, metodo, idatzi eta konferentzia ugari egin ditu, tartean *Haurrak jo txistua* (1979), *Canto Escolar: material pedagógico para la formación musical en la E.G.B. basado en el folklore español* (3 bol., 1979) edo *Pedagogía del canto escolar: apuntes para el profesor*.

Nace en Sangüesa en 1940. Inicia sus estudios musicales con el organista local Estanislao Goñi. Cursa piano en el Conservatorio de Donostia con el profesor Iraola; órgano en el Instituto Pontificio de Música Sacra de Roma, composición con Domenico Bartolucci y musicología con H. Anglés. Posteriormente estudia clave con Genoveva Gálvez en Madrid e interpretación de música antigua en Innsbruck y Pistoia (Italia). Ha sido director de *Tesoro Sacro Musical* y *Melodías*, así como de la Escuela Superior de Música Sacra y de Pedagogía Musical de Madrid (1970-1985). Sacerdote claretiano, en 1986 se traslada a la misión que la orden tiene al Norte de Potosí, en Bolivia. A su regreso fija su residencia en Donostia y es coadjutor en la Iglesia de San Ignacio de la ciudad.

Ha desarrollado una intensa actividad como concertista de órgano y compositor. Es autor de numerosas obras religiosas, canciones y armonizaciones, destacando la *Misa Andina*, basada en el folklore autóctono boliviano. Es importante su aportación en el ámbito de la pedagogía musical, gracias a sus escritos y conferencias y métodos como *Haurrak jo txistua* (1979), *Canto Escolar: material pedagógico para la formación musical en la E.G.B. basado en el folklore español* (3 v., 1979) y *Pedagogía del canto escolar: apuntes para el profesor* (3 v., 1980).

ERKOREKA, Gabriel

# ERKOREKA, Gabriel

www.erkoreka.com

Gabriel Erkoreka Bilbon jaio zen, 1969an. Bilboko J.C. de Arriaga kontserbatorioan ikasi zuen eta Gasteizen, Carmelo Bernaolarekin. 1995ean, Michael Finnissyrekin ikasi zuen konposizioa Londoneko Royal Academy of Music-en, eta Londoneko Unibertsitatean Master bat egin zuen.
Haren lanak Venezian, Vienan, Londonen, Manchesterren, Hong Kongen, Sydneyn, New Yorken, Chicagon eta Madrilen estreinatuak izan dira. Hainbat sari jaso ditu: SGAE (1996), Eusko Jaurlaritza (1999), Erromako Saria (2001), INAEMen Konposizio Saria eta Espainiako Kolegioa (Paris) eta Ferrer-Salaten Reina Sofía saria.
INAEM, Nieuw Ensemble (Amsterdam), Biennale für Neue Musik (Hannover), Madrilgo Erkidegoko Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra, Donostiako Musika Hamabostaldia eta abarren enkarguak jaso ditu. Egun, Musikeneko konposizio irakaslea da.

Gabriel Erkoreka nace en Bilbao en 1969. Estudia en el Conservatorio J.C. de Arriaga (Bilbao) y con Carmelo Bernaola en Vitoria. Realiza en 1995 estudios de composición con Michael Finnissy en la Royal Academy of Music (Londres) así como un Máster por la University of London.
Sus obras han sido interpretadas en Venecia, Viena, Londres, Manchester, Hong Kong, Sídney, Nueva York, Chicago o Madrid. Ha obtenido los premios SGAE (1996); Gobierno Vasco (1999); Premio de Roma (2001), Premio de Composición del INAEM y del Colegio de España (París), y el Premio Reina Sofía de la Fundación Ferrer-Salat.
Ha recibido encargos del INAEM, el Nieuw Ensemble (Ámsterdam), la Biennale für Neue Musik (Hannover), Orquesta Sinfónica de la Comunidad de Madrid, Euskadiko Orkestra, la Quincena Musical de San Sebastián, etc. Actualmente es profesor de composición en MUSIKENE.

# ESCUDERO, Francisco

ESCUDERO, Francisco

http://www.eresbil.com/web/escudero/

1912ko abuztuaren 13an jaio zen, Donostian. Udal Akademian eta Donostiako Kontserbatorioan hasi zituen musika-ikasketak Beltrán Pagolarekin. Konposizio-ikasketak Madrilen amaitu zituen, Conrado del Campo maisuaren gidaritzapean.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta San Fernando Arte Ederretako Errege Akademiaren diru-laguntzari esker, konposizioko eta orkestra-zuzendaritzako ikasketak sakondu zituen Frantzian eta Alemanian Paul Dukas, Le Flem eta W. Wolf maisuen zuzendaritzapean.
1945ean, Bilboko Miserikordia Santuko musika-maisu eta Elkarte Koraleko zuzendari izendatu zuten.
1947an, Donostiara etorri zen bizitzera eta bertako Udal Kontserbatorioko harmoniako eta konposizioko katedrak atera zituen. 1962an bertako zuzendari izendatu zuten, 1981 arte.
Gero, 1983an erretiroa hartu zuen arte, harmoniako eta konposizioko katedretan aritu zen.
Lan pedagogiko handia burutzeaz gainera, sakontasun handiz landu du musika-konposizioaren arloa.
Bere-bereak dituzten ezaugarri bereziak eta mundu osoan ezagututako musika-lan ugari idatzi ditu, euskal musikaren historiarako oso garrantzitsuak guztiak.
Zarautzen zendu zen, 2002ko ekainaren 7an.

Nace en San Sebastián el 13 de agosto de 1912. Inició sus estudios musicales en la Academia Municipal y en el Conservatorio Donostiarra, bajo la dirección de Beltrán Pagola. Los estudios de composición los terminó en Madrid, teniendo como maestro a Conrado del Campo.
Con becas de la Diputación de Gipuzkoa y de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, perfeccionó la composición y la dirección orquestal en Francia y Alemania con los maestros Paul Dukas, Le Flem y W. Wolf.
En 1945 fue nombrado maestro de música de la Santa Misericordia y director de la Sociedad Coral, ambas de Bilbao.
En 1947 se instaló en San Sebastián, logrando este año la cátedra de armonía y composición del Conservatorio Municipal.
En 1962 fue nombrado director del mismo, cargo que ejerció hasta 1981, limitándose desde entonces a su cátedra de armonía y composición hasta 1983, año de su jubilación.
Su gran tarea pedagógica ha estado acompañada de una profunda entrega a la composición musical. Es autor de una importante lista de obras transcendentales en la historia de la música vasca, de características propias inconfundibles y aceptación universal.
Falleció en Zarautz el 7 de junio de 2002.

# EXTREMIANA, Hilario

EXTREMIANA, Hilario

Harmonia eta Konposizioa ikasi zituen Gasteizen Carmelo Bernaolarekin, Bilbon Juan Corderorekin eta Sienan Franco Donatonirekin. Madrilen amaitu zituen konposizioko goi-mailako ikasketak Antón García Abrilekin, eta orkestra-zuzendaritzakoak Enrique García Asensiorekin. Klarinetea eta pianoa ere ikasi zituen.
Harmoniako irakaslea eta Bilboko Goi Kontserbatorioko Orkestrako zuzendaria izan zen, eta lau urtez zuzendaritza taldeko kide ere izan zen. Eskolak eman zituen Gasteizko, Miranda de Ebroko eta Amurrioko kontserbatorioetan, baita Deustuko Unibertsitatean ere.
Arabako Metal Taldearen eta Barakaldoko Zigor Abesbatzaren zuzendaria izan zen. KURAIA Elkarteko, Musika Sinfonikoko Konpositoreen Elkarteen Estatuko Elkarteko eta ROAIMeko kide sortzailea izan zen. Musikagileak elkarteko lehendakaria ere izan zen.
Hainbat formazio eta generotarako obren egilea da, bai instrumentu bakarrerako edo ganberarako, bai orkestrarako ere. Horietako batzuk kontserbatorioetako eta ikastetxeetako ikasketa-programen parte dira. *La Cenicienta Roja* operaren egilea da. Gainera, moldaketa ugari egin ditu hainbat musika talde eta estilotarako, klasikotik hasi eta pop edo folkeraino.
Vitoria-Gasteizko Udal Musika Bandaren zuzendari titularra oposizio-lehiaketa bidez izan zen, 1999tik 2019ra.

Realiza estudios de Armonía y Composición en Vitoria con Carmelo Bernaola, en Bilbao con Juan Cordero y en Siena con Franco Donatoni. Finaliza en Madrid los estudios superiores de Composición con Antón García Abril y los de Dirección de Orquesta con Enrique García Asensio. También estudia Clarinete y Piano.
Ha sido profesor de Armonía y Director de la Orquesta del Conservatorio Superior de Bilbao, formando parte del equipo directivo durante cuatro años. Ha impartido clases igualmente en los conservatorios de Vitoria, Miranda de Ebro y Amurrio, así como cursos en la Universidad de Deusto.
Fue Director del Grupo de Metales de Álava y del Coro Zigor de Barakaldo. Es miembro fundador de la Asociación KURAIA, de la Agrupación Estatal de Asociaciones de Compositores de Música Sinfónica y de ROAIM. Ha sido Presidente de la Asociación Vasco-Navarra de Compositores.
Es autor de obras para formaciones y géneros diversos, tanto para instrumento solo o cámara como para orquesta. Varias de ellas forman parte de programas de estudio en conservatorios y centros de enseñanza. Es autor de la ópera *La Cenicienta Roja*. Ha realizado además numerosos arreglos para diferentes formaciones y estilos musicales que van desde el clásico hasta el pop o el folk.
Fue, por concurso oposición, Director titular de la Banda Municipal de Música de Vitoria-Gasteiz desde 1999 hasta 2019.

EZKURRA, Julen

## EZKURRA, Julen

1930ean jaio zen Izarran. Rodrigo A. de Santiagorekin egin zituen lehenengo musika ikasketak eta harmoniakoak Enrique Villalbarekin, Valladoliden. Perun egonaldi bat egin ondoren, 1963 eta 1966 bitartean Paris eta Erroman sakondu zituen musika ikasketak. Liturgia Musikarako Idazkaritza Nazionaleko kide izan zen eta liturgiaren musika berritzeko lan handia egin zuen. 1974an Bilbora bidali zuten. 1977an Euskal Herriko Unibertsitateko Korua sortu zuen eta bertako zuzendari izan zen 1999an erretiroa hartu zuen arte. Liturgia berrirako lanak sortzeaz gain, Amerikako eta euskal folklorean oinarritutako korurako musika asko egin zuen, eta baita bi kantata koral ere.

Nace en Izarra en 1930. Realiza sus primeros estudios musicales con Rodrigo A. de Santiago y armonía con Enrique Villalba en Valladolid. Tras un período en el Perú, amplía estudios musicales entre 1963 y 1966 en París y Roma. Perteneció al Secretariado Nacional de Música Litúrgica, realizando una importante labor de renovación de la liturgia musical. Trasladado a Bilbao en 1974, funda el Coro de la Universidad del País Vasco el año 1977, del que es director hasta su jubilación en el año 1999. Es autor, además de las piezas para la nueva liturgia, de un buen número de música coral, parte de ella basada en los folklores americano y vasco, así como de dos cantatas corales.

# GAMARRA, Manuel de

1723ko martxoaren 28an Lekeition jaio zen, Bilboko Santiagoko musika kaperako tiplea izan zen, eta musikalki J. B. Inurrieta J. Oxinagaren osabaren etxean ikasi zuen. 1741ean Eibarko organista postua lortu zuen eta 1748an Ciudad Rodrigoko organista izendatu zuten.

1753an, Bilboko Kapera Maisu izendatu zuten, eta 1777an titular bihurtu zen. 1779an, A. Lombide organo-jotzailea ordezkatu zuen, bi zereginak aldi berean burutuz. Zeregin horien arabera, organo, organista eta musika-kopiatzaileen peritazio ugari egin zituen, eta, era berean, kaperako tipleak mantentzeaz eta irakasteaz arduratu zen.

Francisco Xavier Munibe Idiáquez Peñafloridako Kondearekin harreman komertzialak eta musikalak izan zituen, eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartean sartu zen, Agregatuen klaseko lehen bazkide gisa, eta Elkartearen Kapera Maisu gisa aritu zen hil zen arte.

Bere betebeharrak ziren obra berriak egitea, zuzentzea, Elkartearen artxibo musikala gordetzea, orkestrarako musikariak kontratatzea eta Batzar Nagusietako gauetan egiten ziren kontzertuak zuzentzea.

Halaber, hainbat eztabaida zientifikotan parte hartu zuen, eta biztanleriaren higiene-baldintzak hobetzeko zenbait proiektu eta asmakizun aurkeztu zituen, Gizarteak sustatutako gizarte-aurrerabidearen ildotik.

Bilbon hil zen, 1791ko irailaren 6an.

Nacido en Lekeitio el 28 de marzo de 1723, fue tiple de la capilla musical de Santiago de Bilbao, educándose musicalmente en casa de J. B. Inurrieta, tío de J. Oxinaga. En 1741 ocupó la plaza de organista de Eibar y, en 1748, fue elegido como organista de Ciudad Rodrigo.

En 1753 fue nombrado Maestro de Capilla coadjutor en Bilbao, pasando a ser titular en 1777. En 1779 sustituyó al organista A. Lombide, llevando de manera simultánea las dos tareas, en función de las cuales realizó numerosos peritajes de órganos, de organistas y de copistas musicales, e igualmente se encargó del mantenimiento y la enseñanza de los tiples de la capilla.

Mantuvo relaciones tanto comerciales como musicales con Francisco Xavier Munibe Idiáquez, Conde de Peñaflorida, ingresando en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País como primer socio en la clase de "Agregados" y ejerciendo de Maestro de Capilla de la Sociedad hasta su muerte. Eran obligaciones suyas el componer nuevas obras, dirigirlas, conservar el archivo musical de la Sociedad, contratar músicos para la orquesta y dirigirla en los conciertos, que solían tener lugar las noches de las Juntas Generales.

También participó en diversas discusiones científicas y presentó varios proyectos e inventos propios destinados a la mejora de las condiciones higiénicas de la población, en la línea de progreso social preconizada por la Sociedad.

Falleció en Bilbao, el 6 de septiembre de 1791.

GARCÍA DE SALAZAR, Juan

## GARCÍA DE SALAZAR, Juan

1639ko otsailaren 12an Arabako Tuesta herrian jaio zen. 1659 urtean, Burgoseko Katedraleko agirien arabera, haur-abeslari eskolako kide zen, bere anaiarekin batera.
1661ean Kapera Maisu plaza irabazi zuen Toroko Kolegiatan, Zamoran, eta 1663an Burgo de Osmako Kolegiatan.
Burgo de Osmako egonaldian, nabarmentzekoa da Katedraleko musika-artxiboa ordenatzeko eta berreskuratzeko kabildoak hasitako kanpaina, eta García de Salazar arduratu zen zeregin horretaz.
1668an Zamorako Katedraleko Kapera Maisuaren kargua hartu zuen, eta bertan egon zen 1710eko uztailaren 8an hil zen arte.

Nació en el pueblo alavés de Tuesta en 1639. El año 1659 lo citan junto con su hermano Simón en las actas de la Catedral de Burgos como miembros del Colegio de mozos de coro.
En 1661 gana la plaza de Maestro de Capilla en la Colegiata de Toro, Zamora, y en 1663 la de Burgo de Osma.
Durante el periodo de estancia en Burgo de Osma es de destacar la campaña que inicia el cabildo de ordenar y recuperar el archivo musical de la Catedral y es García de Salazar el encargado de llevar a cabo esta tarea.
En 1668 accede al cargo de Maestro de Capilla de la Catedral de Zamora, donde permanece hasta su muerte el día 8 de julio de 1710.

GONZÁLEZ BASTIDA, Miguel

## GONZÁLEZ BASTIDA, Miguel

1920ko irailaren 26an jaio zen Bergaran. Ignacio eta Jesusaren semea. Aitarekin, Bergarako Musikako Udal Bandaren zuzendariarekin hasi zituen musika ikasketak, pianoa eta piccoloa lantzen. 10 urte zituela bandan sartu zen piccoloa jotzeko. Gero, pianoa jotzen nabarmendu zen. 1937an Bergarako Musika Bandaren zuzendariorde izan zen eta zuzendari 1941etik aurrera eta baita Santa Marina Parrokiako organo-jolea ere.

1948an. ikasketak sakondu zituen eta ordu arte ikasitakoa ofizialdu egin zuen. Hori horrela, flauta, piano, harmonia, konposizioa, kontrapuntoa eta fuga landu zituen, Donostiako Kontserbatorioan Luis Urteaga, Ramon Usandizaga eta José María Iraolarekin.

1971n, Bergarako Orfeoiaren zuzendari izendatu zuten ordu arte Ramón Oyarzábal maisu ospetsuari jarraituz, 17 urte eman zituen kargu horretan.

Musikagile oparoa izan da, batez ere, bandarako musikan. Oso ezagunak dira haren *Estampas bergaresas*. Txistu bandarako ere sortu izan du: *Hiru martxa heraldiko*, *Argiak argitu dezan*, etab.

Musika-lan erlijioso garrantzitsuak ere sortu ditu: *Euskal Meza,* 5 ahots eta organoa, *Liberame Domine*, 4 ahots eta organoa, *Tota pulchra*, 6 ahots eta organoa, *Ave Maria*, 4 ahots eta organoa, *Stabat Mater*, 4 ahots eta orkestra, etab. Azken hori 1976an estreinatu zuen bera zuzendari zela.

2013ko urriaren 31an zendu zen.

Nace en Bergara el 26 de setiembre de 1920, hijo de Ignacio y Jesusa. Hizo sus estudios musicales con su padre, organista y director de la Banda Municipal de Bergara, cultivando el flautín y el piano.

A los diez años ingresó en la Banda, como flautín. Más tarde destacó como excelente pianista.

En 1937 fue nombrado subdirector de la Banda de Bergara, siendo director desde 1941, así como organista de la Parroquia de Santa Marina.

En 1948 amplió e hizo oficiales sus estudios de flauta, piano, armonía, composición, contrapunto y fuga en el Conservatorio de San Sebastián con Luis Urteaga, Ramón Usandizaga y José Mª Iraola.

En 1971 accedió a la dirección del Orfeón Bergarés, sucediendo en el cargo al mítico Ramón Oyarzábal. Se mantuvo al frente durante 17 años.

Su producción musical es muy extensa, especialmente para Banda. Particularmente populares son sus *Estampas Bergaresas.* También para conjunto de txistularis ha compuesto *Tres marchas heráldicas, Argiak argitu dezan,* etc.

Igualmente, ha escrito importantes obras de música religiosa: *Euskal Meza* a 5 voces y órgano, *Liberame, Domine* a 4 voces y órgano, *Tota pulchra* a 6 voces y órgano, *Ave Maria* a 4 voces y órgano, *Stabat Mater* a 4 voces y orquesta, etc. Esta última obra se estrenó en 1976, dirigida por el propio autor.

Falleció el 31 de octubre de 2013.

## GURIDI, Jesús

http://www.eresbil.com/web/guridi/

Gasteizen jaio zen, 1886an. Madrilen burutu zituen musika-ikasketak. Gerora, Bilbon jarraitu zituen Sainz Basaberekin, eta Pariseko Schola Cantorumen, Vincent d´Indyrekin; Bruselan, Joseph Jongenekin eta Kolonian Otto Neitzelekin sakondu zituen. 1912az geroztik, Bilboko Koru Elkarteko zuzendaria izan zen eta musikagile etapa oparoari ekin zion musika genero guztiak landuz: koruentzako musika erlijiosoa, organorako musika, orfeoirako musika, ganbera-musika (harizko laukote bi), musika sinfonikoa (*Sinfonía pirenaica, Homenaje a Walt Disney*), lirikoa (*Mirentxu, Amaya, El Caserío, Mari-Eli, Peñamariana...*), zinerako musika, etab. 1939an, Madrila joan zen bizitzera. Organo Katedraduna izan zen Madrileko Goi-mailako Kontserbatorioan, eta 1956az geroztik bertako zuzendaria, 1961ean zendu zen arte.

Nació en 1886 en Vitoria-Gasteiz. Hizo sus primeros estudios musicales en Madrid. Los continuó en Bilbao con Sainz Basabe y amplió en la Schola Cantorum de París con Vincent d'Indy y, más tarde, en Bruselas con Joseph Jongen y Colonia con Otto Neitzel. Desde 1912 fue director de la Sociedad Coral de Bilbao e inició una brillante etapa de compositor, escribiendo en todos los géneros: música religiosa, para coros, órgano, orfeónica, música de cámara (dos cuartetos de cuerda), sinfónica (*Sinfonía pirenaica, Homenaje a Walt Disney*), lírica (*Mirentxu, Amaya, El Caserío, Mari-Eli, Peñamariana…*), música de cine, etc. En 1939 fijó su residencia en Madrid. Desempeñó la cátedra de órgano en el Real Conservatorio, del que fue director desde 1956 hasta su muerte en 1961.

## IBARRONDO, Félix

Oñatin jaio zen 1943an, musikarekin harremana zuen familia batean eta aitarekin hasi zituen musika ikasketak. Filosofia eta Teologiako ikasketekin batera konposiziokoak burutu zituen Juan Cordero Castaños-ekin. Donostiako eta Bilboko Kontserbatorioetan piano eta konposizio diplomak lortu zituen. 1970ean Parisera abiatu zenean Max Deutsch, Henri Dutilleux eta Maurice Ohanaetarekin sakondu zituen ikasketak. Aldi berean GRM-en (Groupe de recherches musicales) musika elektronikoa hasi zen lantzen.

Lortu dituen sarien artean Óscar Esplá Saria, Lili Boulanger-a, SACEM (Frantziako Autore eta Konpositoreen Elkartea) Konpositore Gazteena edo Frantziako akademiako Nadia Boulanger Sariak azpimarratuko genituzke.

Parisera joan zenean École du Louvre eskolan sartu zen. Pinturan (eta, oro har, arte plastikoetan) bere konposizio-lanerako estimulu iraunkorra aurkitu zuen. Bere obran, ugaria eta askotarikoa, orkestra eta ahots-musika gailentzen da.

Maurice Ohana eta Francisco Guerrero musikagileekin izan zuen lotura erabakigarria izan zen, pertsonal mailan baita musikalki ere.

Nace en Oñati en 1943, en el seno de una familia de tradición musical. Realiza los primeros estudios musicales con su padre Antonino. Paralelamente a los estudios de filosofía y teología, trabaja la composición musical con Juan Cordero Castaños. Obtiene los diplomas de piano y composición en los Conservatorios de San Sebastián y Bilbao. En París, donde reside desde el año 1970, ha tenido como profesores a Max Deutsch, Henri Dutilleux y Maurice Ohana. Se inicia asimismo a la música electroacústica en el GRM (Groupe de Recherches Musicales).

Obtiene, entre otros premios, el premio Óscar Esplá, el Lili Boulanger, el de Jeune Compositeur de la SACEM (Sociedad de Autores y Compositores francesa), así como el Nadia Boulanger de la Academia francesa.

A su llegada a París, sigue las clases de l'École du Louvre. Encontrará en la pintura (y en las artes plásticas en general) un estímulo permanente para su labor compositiva. En su obra, abundante y variada, prevalecen la música orquestal y vocal.

Su estrecho vínculo con los compositores Maurice Ohana y Francisco Guerrero fue determinante, tanto musical como humanamente.

# IDIARTBORDE, Anita B.

IDIARTBORDE, Anita B.

Rosarion (Argentina) jaio zen 1891ko uztailaren 26ean. Ez dugu bere ibilbide profesional nahiz jaso izan zuen hezkuntzari buruzko informaziorik. Henri Bringuet-ekin ezkondu zen eta bere argitalpenak A. Bringuet-Idiartborde izenarekin sinatzen zituen.

Ganberarako musika idatzi zuen (piano, biolontxelo eta piano, boskote) baita orkestrarako musika ere. Horren adibide dira *Symphonie Atlantique (épopée colombienne)*, *Sinfonía Argentina* edo *Guipúzcoa* izeneko bi koadrotako balleta.

Aita Donostiari galdetu ostean, bere musika ondarea Baionako Euskal Museoan utzi zuen. Garai hartan *Histoire de Roland*-en orkestrarako zirriborroa amaitzen ari zen. Bat-batean hil zen Cannes-en, bere seme-alabak ikustera joan zen batean, 1943ko uztailaren 13an.

Nace en Rosario, Argentina, el 26 de julio de 1891. Desconocemos por el momento detalles de su etapa formativa y profesional. Se casó con Henri Bringuet, publicando sus composiciones como A. Bringuet-Idiartborde.

Es autora de música de cámara (piano, violonchelo y piano, quinteto) así como de música orquestal, con títulos como *Symphonie Atlantique (épopée colombienne)*, *Sinfonía Argentina* o el ballet en dos cuadros *Guipuzcoa*.

Tras pedir el parecer del P. Donostia, depositó el año 1943 su legado musical en el Museo Vasco de Bayona. Estaba terminando en esa época el borrador de orquesta de *Histoire de Roland*, figurando en su legado como opus 28, *Simple histoire de Roland*. Fallece circunstancialmente en Cannes, en una visita a sus hijos, el 13 de julio de 1943.

## IPARRAGUIRRE, José María

Urretxun jaio zen, 1820an. Zerainen osaba batekin gaztelania eta gramatika ikasi ondoren, Gasteizera joan zen latina ikastera. Hamahiru urte zituela, Madrilera joan zen familia osoa. 1933an etxetik ihes egin eta karlisten lerroetara sartu zen lehen karlistaldia zela eta. Garai horretan litekeena da gitarra jotzen hastea, bere bizitzan zehar lagun izango zuen instrumentua. Borroka amaitu ondoren, Frantziara joan zen, eta, beranduago, Tirolera, non Caroline Duprez sopranoa ezagutu zuen, hari kantu eskolak emateko prest zegoena. Ondoren, Europan zehar berarekin emanaldiak eskaintzen ibili zen. Frantzian, *La Marsellesa* abestean sortzen zituen zalapartak zirela eta, herrialdetik bota egin zuten. 1851n Londresera iritsi zen, Italiako konpainia liriko bateko kide izanik. 1852an Euskal Herrira itzuli zen eta 1853an Madrilen geratu zen; ordukoa da hark idatzitako *Gernikako Arbola* kantua, ereserki bilakatuta, haren obrarik interpretatuena. 1858an Ameriketara emigratzea erabaki zuen, hasiera batean Buenos Airesen bizi izan zen, eta gero Uruguaira joan zen non artzain bezala hainbat arrantxotan bizi izan zen.

Pobrezian urte batzuk igaro ondoren, 1877an Euskal Herrira itzuli zen, eta euskal kulturaren sinbolotzat hartu zuten. Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aldundietatik pentsio bat jaso zuen, Itsason (Gipuzkoa) pulmonia baten ondorioz hil aurretik. Hogei bat doinu aitortzen zaizkio, eta horietako asko herrikoi bihurtu dira. XIX. eta XX. mendeetako hainbat autorek *Adio Euskal-Erriari, Ara nun diran, Ume eder bat* edo *Zugana Manuela* doinuak erabili izan dituzte pianorako, kanturako eta pianorako, korurako edo hainbat instrumentu-talderentzako moldaketak eta harmonizazioak egiteko.

Nace en Villareal de Urrechua, hoy Urretxu, en 1820. Tras aprender castellano y gramática con un tío suyo en Zerain, se trasladó a Vitoria para aprender latín, y con trece años se trasladó toda su familia a Madrid. En 1933 se escapó de casa y se alistó a las filas carlistas con ocasión de la primera carlistada. En esta época es probable que se iniciara en la guitarra, un instrumento que le acompañaría a lo largo de su vida. Terminada la contienda se trasladó a Francia y más tarde al Tirol, donde debió de conocer a la soprano Caroline Duprez que se ofreció a impartirle clases de canto y con quien recorrería después parte de Europa. En Francia y con ocasión de los tumultos que ocasionaba al cantar en público *La Marsellesa*, fue expulsado del país. En 1851 llegó a Londres, formando parte de una compañía lírica italiana. En 1852 regresa al País Vasco y en 1853 se encuentra en Madrid, fecha en la que se suele datar la composición de su melodía más interpretada, una vez convertida en himno, el *Gernikako Arbola*. En 1858 decidió emigrar a América, instalándose inicialmente en Buenos Aires, para pasar al Uruguay, donde residió en diversos ranchos como pastor. Tras pasar varios años de penuria, en 1877 regresa al País Vasco, siendo recibido como un símbolo de la cultura vasca. Recibió una pensión por parte de las Diputaciones de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya poco antes de que, a consecuencias de una pulmonía, falleciera en la localidad guipuzcoana de Itsaso.

Se le reconocen una veintena de melodías, gran parte de las cuales se han convertido en populares. Diversos autores de los siglos XIX y XX se han servido de melodías como *Adio Euskal-Erriari*, *Ara nun diran*, *Ume eder bat* o *Zugana Manuela*, para realizar arreglos y armonizaciones para piano, canto y piano, coro o diversos conjuntos instrumentales.

# IRAIZOZ, Urtzi

IRAIZOZ, Urtzi

Txistu ikasketak Lesakako Musika Eskolan hasi zituen Santiago Irigoyenen eskutik,  Barañaingo Musika Eskolan eta Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean jarraituz. Txomin Agirregomezkorta, Amaia Domeño, Alfonso Iturria, Raúl Madinabeitia eta Aitor Amilibia izan ditu irakasle.

Paraleloki, Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean harmonia ikasketak hasi zituen Carlos Etxeberriarekin eta konposiziokoak Musikenen amaitu zituen.

2002an Villabonan ospatutako Euskal Herriko Txisturako Banda Txapelketan 3. postua eskuratu zuen, 2009. urtean “Durango hiria” Txisturako Konposizio Lehiaketan lehen eta bigarren sariak eskuratu zituen, eta 2017an Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatutako konposizio sariketan bigarren postua lortu zuen.

Bere obrak hainbat taldek interpretatuak izan dira (Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Muna hirukotea edota Garaikidea Ensemblea besteak beste) eta hainbat instituziorekin elkarlanean jardun izan du: 2013-2014 ikasturteko NUP-eko ikasturte irekierako ekitaldian akordeoirako bere *Argirantz* obra entzun ahal izan zen eta Nafarroako Hezkuntza Departamenduarekin elkarlanean haurrei zuzendutako ipuin musikalak sortu izan ditu.

2016an txisturako bere musiketako asko biltzen dituen *Xendrak* diskoa plazaratu zuen.

Egun, Iruñako Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean harmonia eta analisi musikaleko eskolak ematen ditu.

Se inició en el txistu en la escuela de música de su pueblo natal, Lesaka, con Santiago Irigoien, continuando en la Escuela de Música de Barañain y en el Conservatorio Profesional Pablo Sarasate de Pamplona. Ha tenido como profesores a Txomin Agirregomezkorta, Amaia Domeño, Alfonso Iturria, Raúl Madinabeitia y Aitor Amilibia.

Paralelamente, dio comienzo a sus estudios de armonía en el Conservatorio Profesional Pablo Sarasate de la mano de Carlos Etxeberria y concluyó los de composición en Musikene.

Obtuvo el tercer premio en el campeonato de Bandas de Txistu de Euskal Herria celebrado en Villabona en 2002 y el primer y segundo premio en el concurso de composición “Durango Hiria” en 2009, así como el segundo premio en el concurso de composición organizado por la Asociación de Txistularis de Euskalerria en 2017.

Sus obras han sido interpretadas por varias agrupaciones —Orquesta Sinfónica de Navarra, Trío Muna y Garaikideak Ensemble, entre otros— y ha colaborado con diversas instituciones: su obra *Argirantz*, para acordeón solo, sonó en el acto de apertura del curso académico 2013-2014 de la UPNA y ha trabajado con el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra en la creación y puesta en marcha de cuentos musicales.

En 2016 publicó el disco *Xendrak*, que recoge mucha de su música para txistu.

Actualmente trabaja como profesor de armonía y análisis musical en el Conservatorio Profesional Pablo Sarasate de Pamplona.

# JACINTO, Javier

JACINTO, Javier

https://javierjacinto.wordpress.com/

Pasaian jaio zen 1968an. Madrilgo Goi Mailako Musika Kontserbatorioan Konposizio eta Orkestra Zuzendaritzako tituluduna da, eta Antón García Abril eta Francisco Escuderoren ikasle izan zen. Era berean, Carmelo A. Bernaola, Franco Donatoni, Gérard Grisey eta Cristóbal Halffter-ekin ikasi zuen. Flora Prieto, Fundación Guerrero, SGAE Jóvenes Compositores, Eusko Jaurlaritzaren Musika Sorkuntza Garaikidea, Virgen de la Almudena-Unión Fenosa, Pablo Sorozábal edo Joaquín Turina bezalako konposizio-lehiaketetan saritua, 40 herrialde baino gehiagoko jaialdietan interpretatu dira bere lanak, eta George Pehlivanian, Víctor Pablo Pérez, Juanjo Mena, José Ramón Encinar, Jesus Amigo, Joan Cerveró, Álvaro Albiach, Luis Aguirre edo José de Eusebio bezalako zuzendariek zuzendu dituzte. Euskadi, Galizia, Sevilla edo RTVEko orkestra sinfonikoek euren konposizioak estreinatu dituzte.

Orkestra-zuzendari gisa Berlinen egin zuen debuta nazioartean, Deutsches Kammerorchester zuzentzen. Lau urtez Euskal Herriko Musika Eskoletako Gazte Orkestra eta Badajozko Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Orkestra zuzendu zituen, eta horiekin batera Donostiako Musika Hamabostaldian edo Toledoko Nazioarteko Musika Jaialdian parte hartuz. Extremadurako Orkestra ere zuzendu izan du, eta arreta berezia eskaini dio Madrilgo San Patricio Arte Zentroko Orkestra bezalako orkestra gazteekin lan egiteari. Era berean, Sax Ensemble ganbera-taldea hainbat aldiz zuzendu du.

Gaur egun, bere jarduera artistikoa eta pedagogikoa uztartzen ditu Madrilgo Federico Moreno Torroba Musika Irakaskuntzen Ikastetxe Integratuan.

Nacido en Pasaia (1968), es titulado en Composición y Dirección de Orquesta por el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid, habiendo sido alumno de Antón García Abril y Francisco Escudero. Asimismo, amplió sus estudios con Carmelo A. Bernaola, Franco Donatoni, Gérard Grisey y Cristóbal Halffter.

Premiado en concursos de composición como el Flora Prieto, Fundación Guerrero, SGAE Jóvenes Compositores, Creación Musical Contemporánea del Gobierno Vasco, Virgen de la Almudena-Unión Fenosa, Pablo Sorozábal o Joaquín Turina, sus obras han sido interpretadas en festivales de más de 40 países y dirigidas por directores de la talla de George Pehlivanian, Víctor Pablo Pérez, Juanjo Mena, José Ramón Encinar, Jesús Amigo, Joan Cerveró, Álvaro Albiach, Luis Aguirre o José de Eusebio. Las orquestas sinfónicas de Euskadi, Galicia, Sevilla o RTVE han estrenado sus composiciones.

Como director de orquesta debutó internacionalmente en Berlín dirigiendo a la Deutsches Kammerorchester. Funda y dirige durante cuatro años la Joven Orquesta de las Escuelas de Música del País Vasco y la Orquesta del Conservatorio Superior de Música de Badajoz, actuando con ellas en festivales como la Quincena Musical donostiarra o el Festival Internacional de Música de Toledo. También ha dirigido la Orquesta de Extremadura y ha dedicado especial atención a trabajar con orquestas jóvenes como la Orquesta del Centro de Arte San Patricio de Madrid. Asimismo, ha dirigido en diversas ocasiones el grupo de cámara Sax Ensemble.

En la actualidad compagina su actividad artística con la pedagógica en el Centro Integrado de Enseñanzas Musicales Federico Moreno Torroba de Madrid.

# JIMÉNEZ, Mariano

Mariano Jiménez Serrano Tuteran (Nafarroa) jaio zen 1970ean. Pianoa, harmonia, kontrapuntua, fuga eta konposizioa ikasi zituen Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan. 1999an, *Ave Maria* motetea Madrilgo Carlos III Unibertsitateak antolatutako konposizio lehiaketa nazional batean saritu zuten.

Irakasle eta hizlari gisa jarduera sendoa izan du. 2007az geroztik irakasle gonbidatua izan zen Nafarroako Unibertsitatean; hizlari izan zen Worcesterreko (Massachusetts, AEB) College of The Holy Crosseko ikasleentzako Udako Ikastaroetan), 2010az geroztik Nafarroako Unibertsitateko Museoko Programa Seniorreko musikologia eta zinematografiako moduluetako irakaslea da, eta 2016az geroztik Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate Hedapeneko Ikastaroetako irakaslea da.

2014 eta 2021 artean, lotura profesional estua izan zuen Bilboko Konpartitu proiektuarekin, eta Glenn Gould, Vladimir Horowitz eta Leonard Bernsteini eskainitako monografikoak egin zituen. Gainera, musika eta zinema hautemateari buruzko edo harmonia tonalari buruzko hainbat ikastaro eman zituen. Halaber, eskola magistralak eman ditu Zinebin (Bilbo) eta tailerrak Guggenheim Museoan.

2009an@Wendy film laburra idatzi eta zuzendu zuen, eta 2014an Smog dokumental luzea zuzendu zuen.

Bere ahotserako obra guztiak Bilboko CM Ediciones Musicales-ek editatu ditu.

Mariano Jiménez Serrano nace en Tudela (Navarra) en 1970. Estudió piano, armonía, contrapunto, fuga y composición en el Conservatorio Pablo Sarasate de Pamplona. En 1999, su motete *Ave Maria* fue galardonado en un certamen nacional de composición organizado por la Universidad Carlos III de Madrid.

Desarrolla una intensa actividad como docente y conferenciante, siendo profesor invitado en la Universidad de Navarra desde el año 2007, ponente en los Cursos de Verano para alumnos del College of The Holy Cross de Worcester (Massachusetts, EE. UU.), profesor de los módulos de musicología y cinematografía del Programa “Senior” del Museo de la Universidad de Navarra desde 2010, y profesor de los Cursos de Extensión Universitaria de la Universidad Pública de Navarra desde 2016.

Entre 2014 y 2021 mantuvo una estrecha vinculación profesional con el proyecto Konpartitu de Bilbao, habiendo realizado monográficos dedicados a Glenn Gould, Vladimir Horowitz y Leonard Bernstein, además de haber impartido varios cursos de apreciación musical y cinematográfica o sobre armonía tonal. También ha impartido clases magistrales en Zinebi (Bilbao) y talleres en el Museo Guggenheim.

En 2009 escribió y dirigió el cortometraje @Wendy y, en 2014, dirigió el largometraje documental Smog.

La totalidad de su obra vocal está editada por CM Ediciones Musicales, de Bilbao.

# LAVILLA, Félix

LAVILLA, Félix

Iruñean jaio zen 1928an eta musika ikasketak Donostian egin zituen. Pianoko karrera amaitu zuen birtuosismoko ikastaroak eginez Goi Mailako Musika Kontserbatorioan José Cubilesekin. Arrakasta handia lortu zuen Europa, Amerika, Afrika, Japonia eta Salzburgo, Australia, Osaka, Bergen eta Leeds-eko nazioarteko jaialdietan, Teresa Berganza, Victoria de los Ángeles, Carlo Bergonzi, Pilar Lorengar, Maurice Gendron, Gaspar Cassadó, Agustín León Ara, Pedro Corostola edo Jessy Norman bezalako artistekin. Madrileko Goi Mailako Eskolako errepertorio estilistika-bokaleko katedraduna izan zen eta baita Granadako Manuel Falla Nazioarteko Ikastaroetan ere. Ganbera-musikaren espezialitatean irakasle eta interprete bezala zuen ospeagatik, Iparramerikako hainbat unibertsitatetan ikasketa magistralak eman zituen. Kantu eta pianorako obrak konposatu zituen bereziki.
Decca, Deutsche Grammophon eta Columbiarekin disko ugari editatu zituen. Madrilen 2013 urtean hil zen.

Nace en Pamplona en 1928 y cursa estudios de música en San Sebastián. Termina su carrera de piano realizando los cursos de virtuosismo en el Real Conservatorio Superior de Música con José Cubiles. Obtiene éxitos importantes de público y crítica en las giras mundiales por Europa, América, África, Japón y en los festivales internacionales de Salzburgo, Australia, Osaka, Bergen y Leeds con artistas como Teresa Berganza, Victoria de los Ángeles, Carlo Bergonzi, Pilar Lorengar, Maurice Gendron, Gaspar Cassadó, Agustín León Ara, Pedro Corostola o Jessy Norman.
Ha sido catedrático de repertorio estilístico-vocal en la Escuela Superior de Canto de Madrid y en los Cursos Internacionales Manuel de Falla de Granada. Su prestigio internacional como profesor e intérprete en la especialidad de música de cámara, le ha llevado a impartir clases magistrales en diversas universidades de Norteamérica. Es autor de obras para canto y piano principalmente.
Posee una amplia discografía con firmas como Decca, Deutsche Grammophon y Columbia. Fallece en Madrid el año 2013.

# LAVILLA, Julián

Ágredan (Soria) jaio zen 1905ean eta Zaragozako Banda Militarrean hasi zuen instrumentista karrera. 1928an musika irakasle eta kontulari plaza lortu zuen Errenteriako Udalean.
Hiribilduan bizi zelarik, bere musika ezagutzak zabaltzea eta hobetzea erabaki zuen Tomás Garbizurekin harmonia klaseetara joanez. Era berean, Errenteriako Udal Akademian Solfeoko irakasle gisa lan oso garrantzitsua egin zuen. Gerraostean, kafeak eta dantza-aretoak girotzen zituzten hainbat orkestratan parte hartu zuen, batez ere Donostian. Los Bohemios, Turrillas orkestra, Juan Herederoren orkestra eta Radio-La Perla orkestraren kasua da, non Lavillak kontrabaxua eta helikoia jo zituen.
Konpositore gisa, batez ere bandarako musika eta orkestrinarako dantzagariak ugari idatzi zituen, txistu, ahots eta pianorako abestiak, korurako lan erlijiosoak eta *Elena de Vergara* zarzuela ere konposatu zituen.
Errenterian hil zen 1955eko urtarrilaren 29an.

Nació en Ágreda (Soria) en 1905 e inició su carrera como instrumentista en la Banda Militar de Zaragoza. En 1928 obtuvo la plaza conjunta de profesor de música y contable en el Ayuntamiento de Errenteria.
Ya afincado en la villa, decidió ampliar y perfeccionar sus conocimientos musicales asistiendo a clases de armonía con Tomás Garbizu. Asimismo, desarrolló una importantísima labor como profesor de Solfeo en la Academia Municipal de Errenteria. En la posguerra formó parte de varias orquestinas que amenizaban los cafés y salones de baile, principalmente en San Sebastián. Tal es el caso de Los Bohemios, la orquestina Turrillas, la orquesta de Juan Heredero o la orquesta Radio-La Perla, en las que Lavilla tocó el contrabajo y el helicón.
Como compositor, escribió fundamentalmente música para banda y múltiples bailables para orquestina, aunque también compuso para conjunto de txistus, canciones para voz y piano, obras religiosas para coro y la zarzuela *Elena de Vergara*.
Falleció en Errenteria el 29 de enero de 1955.

# MANRIQUE ASTIZ, Eduardo

MANRIQUE ASTIZ, Eduardo

Iruñean jaio zen 1970ean. Medikuntza eta Kirurgian lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean, Familia Medikuntzan eta Psikiatrian espezializatu zen, eta, aldi berean, Musikan graduatu zen UNIRen, eta bere ezagutzak zabaldu zituen Luis Ángel de Benito edo Zulema de la Cruzekin.

Bere musika ibilbidea José María Goicoechea erlijiosoaren eskutik hasi zuen, zeinarekin musika hizkuntza eta harmonia ikasi zituen. 1988an, Sine Nomine Musika Tailerraren sorreran parte hartu zuen, beste musikari nafar batzuekin batera, hala nola José Luis Echechipía, Javier Casalí, Javier Huarte de Goñi eta Pello M.ª Ruiz Huici, azken hori taldearen zuzendaria. Horiek guztiek Becky Siegelekin batera lan egin zuten *Ultreya* ikuskizunean Tempomobile dantza konpainiarentzat 1996 eta 1997 bitartean. Urte horretan, Manriquek Nafarroako Unibertsitateko Kino film laburren lehiaketako lehen konposizio saria eskuratu zuen.

2001etik aurrera dokumentaletarako soinu-banda originalak konposatu izan ditu, Hegaz TV and Film Producers ekoiztetxe bilbotarrarentzat egindako lanak nabarmenduz. 2005ean, Schola ad Hoc taldearekin batera, *De Órganos y Facistoles: Rereconstrucción de una Misa de Órgano Siglos XVI al XVIII* disko-grabazioan parte hartu zuen.

Data horretatik aurrera, Barañaingo Abesbatzarekin kolaboratu du askotan, eta korurako bere obra askoren estreinaldia eskaini dio talde horri. Gaur egun, musika, abesbatza eta orkestra-sorkuntzaren mundua sakonago aztertzen saiatzen da.

Nace en Pamplona en 1970. Licenciado en Medicina y Cirugía por la Universidad de Navarra, se especializa en Medicina de Familia y Psiquiatría, al tiempo que se gradúa en Música por la UNIR y amplía sus conocimientos con Luis Ángel de Benito o Zulema de la Cruz.

Había iniciado su andadura musical de la mano del religioso José María Goicoechea, con quien estudió lenguaje musical y armonía. En 1988 participa en la fundación del Taller de Música Sine Nomine junto a otros músicos navarros como José Luis Echechipía, Javier Casalí, Javier Huarte de Goñi y Pello M.ª Ruiz Huici, este último director de la formación. Todos ellos trabajarán junto a Becky Siegel en el espectáculo *Ultreya* para la compañía de danza Tempomobile entre 1996 y 1997, año en el que Manrique obtiene el primer premio de composición del concurso de cortometrajes Kino de la Universidad de Navarra.

A partir de 2001 compone bandas sonoras originales para documentales, destacando los trabajos realizados para la productora bilbaína Hegaz TV and Film Producers. En el año 2005 participa, junto a la Schola ad Hoc, en la grabación discográfica *De Órganos y Facistoles: Reconstrucción de una Misa de Órgano, Siglos XVI al XVIII*.

Desde esa fecha, ha colaborado con la Coral de Barañáin en múltiples ocasiones, ofreciendo a dicha formación el estreno de gran parte de sus obras para coro. Actualmente dedica sus esfuerzos en explorar de forma más intensa el mundo de la creación musical coral y orquestal.

MOCOROA, Eduardo

# MOCOROA, Eduardo

1867ko urriaren 13an Tolosan jaiotako kapera-maisu, organista eta zuzendaria. Solfeo eta pianoko lehen ikasketak Modesto Letamendia eta Rufo Montillarekin egin zituen, eta saxofoi jotzaile gisa sartu zen Tolosako Udal Bandan, oso gazterik. Hamaika urte zituela, Felipe Gorritik parrokiako musika-kaperan sartzea proposatu zion, eta pianoa, organoa, harmonia, kontrapuntua, fuga eta konposizioa ikasi zituen bertan.

1896an Santa Maria parrokiako kapera-maisu eta organista izendatu zuten, baita Udal Banda eta Musika Akademiako zuzendari ere, eta biolin irakasle izan zen akademia horretan. Hiru urte geroago, Hainauteko (Belgika) Nazioarteko Lehiaketetan bere lanetako batzuek lehen sariak lortu zituzten eta Belgikako erregeak Hainauteko Arte, Zientzia eta Literatur Akademiako ohorezko kide izendatu zuen.

1901ean Tolosako Orfeoiaren sorreran parte hartu zuen, eta bertako zuzendari izendatua izan zen, eta 1921ean Editorial de Música Vasca Argitaletxearen zuzendaritza artistikoa hartu zuen, Tolosan sortua Jesús Guridi eta José Francorekin batera.

Tolosako Udalak Hiribilduaren Seme Kutun izendatu zuen 1942an, eta, urte horretan bertan, Donostiako Orfeoiak eta Felipe Gorriti Eskolaniak ohorezko zuzendari titulua eman zioten. Hurrengo urtean, Alfontso X.a Jakitunaren Gurutzea eman zioten.

Bere ekoizpenak organo, orkestra, banda eta korurako ehundik gora obra biltzen ditu, erlijiosoak zein profanoak, eta genero dramatikoa ere jorratu zuen.

Tolosan hil zen 1959ko urtarrilaren 30ean.

Maestro de capilla, organista y director nacido en Tolosa el 13 de octubre de 1867. Realizó sus primeros estudios de solfeo y piano con Modesto Letamendia y Rufo Montilla, e ingresó como saxofonista en la Banda Municipal de Tolosa a muy temprana edad. Con once años, Felipe Gorriti le propuso ingresar en la capilla musical de la parroquia, donde estudiará piano, órgano, armonía, contrapunto, fuga y composición.

En 1896 fue nombrado maestro de capilla y organista de la parroquia de Santa María y director de la Banda y la Academia de Música municipales, además de profesor de violín en dicha academia. Tres años más tarde, varias de sus obras obtuvieron primeros premios en los Concursos Internacionales de Hainaut (Bélgica), por lo que el rey belga le nombró miembro de honor de la Academia Artística, Científica y Literaria de Hainaut.

En 1901 participó en la creación del Orfeón Tolosano, del que fue nombrado director, y, en 1921, asumió la dirección artística de la Editorial de Música Vasca, creada en Tolosa, junto a Jesús Guridi y José Franco.

El Ayuntamiento de Tolosa lo nombró Hijo Predilecto de la Villa en 1942 y, ese mismo año, el Orfeón Donostiarra y la Escolanía Felipe Gorriti le distinguieron con el título de director honorario. Al año siguiente, le fue concedida la Cruz de Alfonso X el Sabio.

Su producción engloba más de un centenar de obras para órgano, orquesta, banda y coro, tanto religiosas como profanas, además de que también abordó el género dramático.

Falleció en Tolosa el 30 de enero de 1959.

OTADUY, Laida

# OTADUY, Laida

Donostian jaioa (1995), bertako Francisco Escudero Kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak, Pianoko espezialitatean. Musikenen, Musika Pedagogiako espezialitatean trebatu zen irakasle gisa, baita Zuzendaritzan ere, Gabriel Baltés, Arturo Tamayo, Hirvo Surva eta Basilio Astulez maisuen eskutik. Musika ikasketak hastapen profesionalekin uztartu zituen, Leioako Kantika Korala, Vocalia Taldea, Musikeneko ikasleen abesbatza eta Donostiako Orfeoia zuzenduz. Koru zuzendaritzan buru-belarri sartuta, Igeldoko Lezkarri Abesbatza mistoaren eta LUT Ahots Taldearen zuzendaria da, eta espezializazio ikastaroak jaso ditu Esteban Urzelai, Lone Larsen, Elisenda Carrasco i Ribot, Mikael Wedar eta Lorenzo Donatiren eskutik.

Konposizioari dagokionez, beti izan ditu bere ibilbide musikalaren bidelagun inguruko musikarako sortutako obra txikietan agertutako jakin-mina eta bere musika propioa sortzeko iniziatiba. Duela gutxi berak idatzitako *Begi urrunei* obra estreinatu zen Jalgi! Music Festival musika jaialdi gasteiztarrean, Miren Urbieta-Vega sopranoaren eta Amaia Zipitria piano-jotzailearen eskutik. Laster, ekainean, berak musikatutako Roberto Aliagaren *La tortuga que quería dormir* ipuinaren estreinaldia programatu da.

Gaur egun, Euskal Herriko Gazteen Abesbatzako, Donostiako Orfeoiko eta Vocalia Taldeko kidea da, Santa Cecilia Abesbatza mistoa zuzentzen du, In-Voice4MPowerment nazioarteko proiektuan aktiboki parte hartzen du eta Errenteriako Herri Arte Eskolan ahots-espezialitateko irakasle gisa lan egiten du.

Nacida en Donostia (1995), inicia los estudios de Piano en el Conservatorio Francisco Escudero, centro donde también estudiará Canto. Su paso posterior por Musikene le permite formarse como docente cursando la especialidad de Pedagogía Musical, y también en Dirección, esta última de la mano de los maestros Gabriel Baltés, Arturo Tamayo, Hirvo Surva y Basilio Astulez.

Compagina sus estudios musicales con sus inicios profesionales realizando prácticas en Leioa Kantika Korala, el coro femenino Vocalia Taldea, el coro de alumnos de Musikene y el Orfeón Donostiarra. Decidida a centrarse en la dirección coral, lidera el coro mixto Lezkarri Abesbatza de Igeldo y el Grupo Vocal LUT, a la vez que recibe cursos de especialización de la mano de Esteban Urzelai, Lone Larsen, Elisenda Carrasco i Ribot, Mikael Wedar y Lorenzo Donati.

En lo que se refiere a la composición, la curiosidad e iniciativa de escribir su propia música le acompañan durante toda su andadura musical, y son manifestadas en pequeñas composiciones creadas para músicos de su entorno. Recientemente se ha estrenado su obra *Begi urrunei* en el Jalgi! Music Festival de Vitoria-Gasteiz, interpretada por la soprano Miren Urbieta-Vega y la pianista Amaia Zipitria. Próximamente, en el mes de junio, se ha programado el estreno del cuento *La tortuga que quería dormir*, de Roberto Aliaga, musicado por ella.

Actualmente es miembro del Coro de Jóvenes del País Vasco, del Orfeón Donostiarra y de Vocalia Taldea, dirige el coro mixto Santa Cecilia Abesbatza, participa activamente en el proyecto internacional In-Voice4MPowerment y trabaja como docente en la especialidad de voz en Herri Arte Eskola de Errenteria.

# PEÑAFIEL, Florentino

PEÑAFIEL, Florentino

Varean (Logroño) jaio zen 1917ko urriaren 16an, eta hamar hilabete zituela Tolosara joan zen bizitzera. Han, Emilio anaiak eta biek Ignacio Mocoroa izan zuten solfeo eta harmonia irakasle. Herriko musika akademian Beobide eta Azurzarekin ikasi zuen, eta tronpetan hasi zen Oyarbiderekin. Hamaika urterekin herriko Udal Bandan sartu zen.

Ondoren, ikasketa ofizialak egin zituen Donostiako Kontserbatorioan, Harmonia ikasi zuen Beltrán Pagolarekin, Musikaren Historia eta Estetika ikasi zuen Ramón Usandizagarekin eta Tronpeta ikasi zuen Miguel Ribaltarekin.

1941ean Radio orkestra donostiarreko fliskornoa izan zen, eta aurrerago, Donostiako Kontserbatorioko Metal irakaslea eta Kontserbatorioko Orkestrako tronpeta bakarlaria.

Sociedad General de Autores de Españako bazkidea izan zen 1950az geroztik, eta bandarako hainbat lan idatzi zituen —jotak, pasodobleak, polkak eta habanerak, horietako batzuk Tolosako pertsonaiei eskainiak — musika-aldizkariak, musika erlijiosoa, zezen-musika, musika modernoa, etab.

Donostian hil zen, 1999ko abuztuaren 22an.

Nacido en Varea (Logroño) el 16 de octubre de 1917, a los diez meses de edad su familia se trasladó a Tolosa, donde su hermano Emilio y él tuvieron como profesor de solfeo y armonía a Ignacio Mocoroa. En la academia de música de la localidad estudió con Beobide y Azurza, iniciándose en la trompeta con Oyarbide. A los once años ingresó en la Banda Municipal de la localidad.

Posteriormente cursó sus estudios oficiales en el Conservatorio de San Sebastián, estudiando Armonía con Beltrán Pagola, Historia y Estética de la Música con Ramón Usandizaga y Trompeta con Miguel Ribalta.

En 1941 era fliscorno de la orquesta donostiarra Radio, y más adelante, profesor de Metal en el Conservatorio de San Sebastián, además de solista de trompeta de la Orquesta del Conservatorio.

Socio de la Sociedad General de Autores de España desde el año 1950, es autor de múltiples obras para banda —jotas, pasodobles, polkas y habaneras, algunas de ellas dedicadas a personajes tolosanos— revistas musicales, música religiosa, música taurina, moderna, etc.

Falleció en Donostia, el 22 de agosto de 1999.

# PIERNÉ, Gabriel

Metzen (Frantzia) jaio zen 1863ko abuztuaren 16an, musika-familia batean. Aitak, baritonoak, kantua irakatsi sion, eta amak pianoa. Familia Parisera aldatu zen 1870ean, eta Gabriel Kontserbatorioan sartu zen. Bertan, hamasei urterekin, Organoko lehen saria lortu zuen, hamazazpi urterekin Harmoniakoa, hemezortzi urterekin Kontrapuntukoa eta Organoko bigarrena, eta hemeretzi urterekin Grand Prix de Rome saria *Edith* kantatarekin.
Erromako Villa Medicin hiru urte eman ondoren, Parisera itzuli zen bere gurasoen kantu eta piano eskola pribatuan irakasteko. 1890ean César Franck hil zenean, Piernék Santa Clotildeko organo-jotzaile kargua bete zuen, 1898ra arte mantendu zuena.
1903an, Édouard Colonneren laguntzaile bihurtu zen *Concerts Colonne* zikloan, eta 1910ean hil zenean, 1933 arte zuzendari nagusi izan zen, Debussy, Ravel, Roussel edo Stravinskyren lanak estreinatu ondoren.
Euskal Herriarekiko maitasun handia erakutsi zuen *Fantaisie Basque* eta *Ramuntcho* lanetan islatuz, Pierre Lotik idatzitako izen bereko dramarako musika intzidentala.
Eduki musikala euskal abesti herrikoietan oinarritzen da, eta, Aita Donostiaren arabera, “kantuak ez dira lurperatuta geratzen kontrapuntu jakintsu eta nahasi baten azpian; gure melodien lerro xelebrea argi eta garbi gordetzen da. Meritu handia, konplikazioa arau dela dirudien garai honetan”. Bere biolin eta orkestrarako *Fantaisie Basque*-n euskal kantu herrikoien erabilera obraren genero rapsodikoaren zantzua du. Batzuk osorik transkribatuta daude eta beste batzuk pixka bat ukituta eta egilearen iruzkin txikiekin lotuta.
Ploujeanen (Finistère) hil zen, 1937ko uztailaren 17an.

Nacido en Metz (Francia) el 16 de agosto de 1863 en el seno de una familia musical. Su padre, barítono, le inició en el canto y su madre en el piano. La familia se trasladó a París en 1870 y Gabriel ingresó en el Conservatorio, donde a los dieciséis años obtuvo el primer premio de Órgano, a los diecisiete el de Armonía, a los dieciocho el de Contrapunto y el segundo de Órgano, y a los diecinueve el Grand Prix de Rome con la cantata *Edith*.
Tras tres años en la Villa Medici de Roma, regresó a París para enseñar en la escuela privada de canto y piano de sus padres. A la muerte de César Franck en 1890, Pierné ocupó su cargo de organista de Santa Clotilde, puesto que mantendrá hasta 1898.
En 1903 se convirtió en adjunto de Édouard Colonne en los *Concerts Colonne* y, a la muerte de éste en 1910, asumió el puesto de director principal de los mismos hasta 1933, habiendo estrenado obras de Debussy, Ravel, Roussel o Stravinsky.
Dio muestras de un gran amor al País Vasco plasmándolo en las obras *Fantaisie Basque* y *Ramuntcho*, música incidental para el drama del mismo nombre escrito por Pierre Loti. Su contenido musical se basa en canciones populares vascas y, según el P. Donostia, “los temas no quedan soterrados bajo un contrapunto sabio y rebuscado; la graciosa línea de nuestras melodías se conserva clara, limpia. Gran mérito en una época en que parece ser norma la complicación”.
En su *Fantaisie Basque* para violín y orquesta el empleo de temas populares vascos es indicio del género rapsódico de la obra. Unos están íntegramente transcritos y otros ligeramente retocados y unidos por pequeños comentarios del autor.
Falleció en Ploujean (Finistère), el 17 de julio de 1937.

SÁENZ RUBIO, Jon

## SÁENZ RUBIO, Jon

Getxon (Bizkaia) jaio zen 1996an. Bere hiriko musika eskolan hasi zituen musika ikasketak, klarinete jotzaile gisa. Berehala Leioako Kontserbatorioan sartu zen Mariano Santamaríarekin pianoko gradu profesionala egiteko. Basilio Astulezek San Juan Bautista abesbatza taldean parte hartzera gonbidatu zuen, eta hori erabakigarria izan zen getxotarraren etorkizunerako.
Gaur egun konposizioko hirugarren maila ikasten ari da Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Zuriñe F. Gerenabarrena, Ramon Lazkano eta Gabriel Erkorekaren tutoretzapean.
Jon Sáenzek konpromiso sendoa du euskal musika koralarekin eta musika garaikidearekin, eta bi munduen arteko zubi bat sortu nahi du, iraganari eta etorkizunari begiratuz bide propioa eraikitzeko.

Nació en Getxo (Bizkaia) en 1996. Comienza sus estudios musicales como clarinetista en la escuela de música de su ciudad. Rápidamente ingresa en el Conservatorio de Leioa para realizar el grado profesional de piano con Mariano Santamaría. Es ahí donde entra en contacto con la música vocal gracias a Basilio Astulez, que le invita a formar parte de San Juan Bautista abesbatza, gesto que será determinante para el futuro del getxotarra.
En la actualidad estudia tercer curso de composición en Musikene, Centro Superior de Música del País Vasco, bajo la tutela de Zuriñe F. Gerenabarrena, Ramon Lazkano y Gabriel Erkoreka.
Jon Sáenz siente un fuerte compromiso con la música coral vasca y con la música contemporánea, de tal manera que intenta crear un puente entre ambos mundos que le permitan expresarse y crear un camino propio con miradas al pasado y al futuro.

SARASOLA, Xabier

## Sarasola, Xabier

19 urterekin hasi zen musika ikasten eta biolin eta piano irakasle tituluak lortu zituen. Gaur egun Beasaingo Udal Musika Eskolan dihardu biolin, harmonia eta kantu koral irakasle. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan eman diren koru zuzendaritza ikastaroetan izan da eta baita Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby eta beste hainbatekin egin diren mintegietan ere. Loinatz koruaren zuzendaria 25 urtez, hauekin parte hartu du hainbat lehiaketatan –eta saria lortu–, kontzertuetan eta jaialdietan. Donostiako Orfeoian kantari izana da eta gaur XX. mendeko koru musika egiten duen KEA ahots taldeko partaide da. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko batzorde teknikoko kide izan da eta Gipuzkoako Gazte Koruaren zuzendari ere bai. Euskal Herriko Abesbatzen Federazioaren ikastaroetan koru zuzendaritza irakasten du.

Musikagile ere bada eta korurako hainbat lan egin ditu, hala nola, *Veni Creator Spiritus*, 2002an Tolosako Abesbatzen Lehiaketan ahots berdinetarako polifonia sailean derrigorrezkoa izan zena.

Inicia sus estudios musicales a la edad de 19 años, obteniendo los títulos de profesor de violín y piano. En la actualidad ejerce como profesor de violín, armonía y canto coral en la Escuela Municipal de Música de Beasain.

Ha asistido a los cursos de dirección coral de la Federación de Coros de Gipuzkoa y a seminarios con Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby, etc. Director del coro Loinatz durante 25 años, con quien ha participado en varios concursos obteniendo diversos premios y en numerosos conciertos y festivales corales, ha sido cantor del Orfeón Donostiarra y ahora lo es del grupo vocal KEA, que se dedica a la música coral del s. XX.

Ha sido miembro del comité técnico de la Federación de Coros de Gipuzkoa y director del Coro Juvenil de Gipuzkoa. Es profesor de dirección coral de los cursos de la Federación de Coros de Euskal Herria.

Como compositor es autor de varias obras corales entre las cuales se encuentra *Veni Creator Spiritus,* pieza obligada en la sección de polifonía voces iguales en el Certamen de Masas Corales de Tolosa de 2002.

SOROZABAL, Pablo

## SOROZABAL, Pablo

Donostian jaio zen 1897an. Bere jaioterriko Arte Ederretako Akademian hasi zituen musika ikasketak. 1914an Kasino Handiko Orkestran sartu zen, Alfredo Larrocha biolin irakasleak zuzenduta. Harmonia eta konposizioa ikasi zituen Beltrán Pagolarekin. 1920an Leipzigera joan zen, Stephan Krehlekin kontrapuntua ikasi zuen eta orkestra zuzendaritza Hans Sittekin. Lan handia egin zuen lehenik banda zuzendari gisa eta geroago orkestra zuzendari gisa.
1922koak dira bere abesbatzarako lehen obrak, eta, jarraian, ganbera eta sinfoniko errepertorioko obrak eta txisturako musika idatzi zituen. 1931n *Katiuska* opereta estreinatu zuen, ordutik aurrera musika lirikoa idatzi zuen batez ere, 23 obra, horien artean *La del manojo de rosas, La Tabernera del Puerto* edo *Adiós a la Bohemia*. Zinemarako musika ere konposatu zuen, ahots edo orkestrako generoak ahaztu gabe.
Madrilen hil zen 1988ko abenduaren 26an.

Nació en San Sebastián en 1897. Inició sus estudios musicales en la Academia de Bellas Artes de su ciudad natal. En 1914 ingresó en la Orquesta del Gran Casino, dirigida por su profesor de violín Alfredo Larrocha. Estudió armonía y composición con Beltrán Pagola. En 1920 se trasladó a Leipzig, estudiando contrapunto con Stephan Krehl y dirección de orquesta con Hans Sitt. Desarrolló una gran labor primero como director de banda y más tarde como director de orquesta.
De 1922 datan sus primeras obras corales, a las que siguen obras del repertorio de cámara y sinfónico, y música para txistu. En 1931 estrenó su opereta *Katiuska*, dedicándose a partir de entonces a la música lírica, con un total de 23 obras entre las cuales destacan *La del manojo de rosas*, *La tabernera del Puerto* o *Adiós a la Bohemia*. Compuso igualmente música para cine, sin olvidar géneros como el vocal o el orquestal.
Falleció en Madrid el 26 de diciembre de 1988.

# TOLOSA, Nicolás María de

TOLOSA, Nicolás María de

Nicolás Lucientes Auzorena Tolosan jaio zen 1883ko abenduaren 5ean. 1901ean Lekarozko (Nafarroa) Kaputxinoen Nobiziatuen Eskolan  sartu zen. Bertan, eliz ikasketez gain, musika ikasketak egin zituen Aita Donostiarekin eta Aita Elduayenekin batera, Ismael Echazarra irakasle zuela. 1906an Madrilen apaiztu ondoren, hurrengo urteetan Kataluniako hainbat komentutan bizi izan zen, eta bertan garatu zuen bere jarduera apostolikoa eta musikala. Bartzelonako Ponpeiako Andre Mariaren elizako eskolania zuzendu zuen. Espiritualtasun handiko gizona zen, eta  gai liturgiko-musikalei buruz idatzi zuen Música Sacro-Hispana, Estudios Francicanos, Boletín de Nuestra Señora de Pompeya eta Vida Sobrenatural aldizkarietan. Hizkuntzetarako zuen erraztasunak hainbat liburu itzultzera eraman zuen.

Konpositore gisa, Espainian Pio X.aren *Motu Proprio*-k  bultzaturiko musika sakratuaren eraberritzea hasi zenean idatzitako obra erlijioso batzuk idatzi zituen. Batez ere, koru eta organorako obrak dira, baita korurako piezak ere, helburu liturgikoekin eginak eta horietako asko Música Sacro Hispana, Iberia Musical edo Musical Emporium-Vda de J.M.Llobet, aldizkarietan argitaratuak. Musika profanoko orrialde batzuk ere idatzi zituen zituen, hala nola *Quince canciones de cuna populares*. Nikolas Maria Tolosakoa Bartzelonan hil zen 1923an.

Nicolás Lucientes Auzorena nace en Tolosa el 5 de diciembre de 1883. En 1901 ingresa en el Colegio-Noviciado capuchino de Lecároz (Navarra), donde además de los estudios eclesiásticos realiza los estudios musicales junto con el P. Donostia y el P. Elduayen, teniendo como profesor a Ismael Echazarra. Tras ordenarse sacerdote en 1906 en Madrid, los siguientes años reside en distintos conventos catalanes, en los cuales desarrolla su actividad apostólica y musical. Dirige la escolanía de la iglesia de Nuestra Señora de Pompeya de Barcelona. Hombre de exquisita espiritualidad, escribe sobre cuestiones litúrgico-musicales que serán publicadas en las revistas Música Sacro-Hispana, Estudios Francicanos, Boletín de Nuestra Señora de Pompeya y Vida Sobrenatural. Su facilidad para los idiomas le llevó a traducir varios libros.

Como compositor nos dejó una serie de obras religiosas escritas en el momento en que en España se iniciaba la reforma de la música sagrada impulsada por el *Motu Proprio* de Pío X. Se trata, sobre todo, de obras para coro y órgano, así como piezas para coro, compuestas con fines litúrgicos y muchas de ellas publicadas en Música Sacro Hispana, Iberia Musical o Musical Emporium-Vda de J.M.Llobet, entre otros. Esporádicamente compuso también algunas páginas de música profana como las  *Quince canciones de cuna populares*. Nicolás María de Tolosa falleció en Barcelona en 1923.

# URRUTIA, Isabel

URRUTIA, Isabel

1967an jaio zen Algortan. Konposizio, piano eta musika pedagogiako ikasketak egin ditu Bilboko Musika Goi Kontserbatorioan. Gero, konposiziokoak sakondu ditu eta orkestra zuzendaritza ikasi du Madrileko Musikako Errege Goi Kontserbatorioan.

Francisco Escudero eta José Luis Campana maisuekin besteak beste osatu ditu bere ikasketak. 2001ean Berziztu Elkarteak antolatutako konposizio lehiaketan lehenengo saria irabazi zuen txistu eta danbolinerako *Gogoan* musika-lanarekin. Bere musikari buruzko hitzaldiak ematen ditu EHUn eta konposizioko hainbat *masterclass* Argentinan, Txile eta Alemanian.

Ganbera eta orkestrarako obrak idatzi ditu nagusiki, eta bere lanak Europa, Amerika eta Asiako jaialdi garrantzitsuetan estreinatu izan dira. Hainbat sari irabazi izan ditu idatzitako obrekin, adibidez: *Gogoan* (Berziztu, 2001) edo *Haizearen nahiak* (Garzyna Bacewicz, Lodz, 2012).

Nace en Algorta, Bizkaia, en 1967. Ha realizado estudios de composición, de piano y de pedagogía musical en el Conservatorio de Bilbao. Realizó estudios de composición en el Real Conservatorio de Madrid, ampliando posteriormente su formación con Francisco Escudero y José Luis Campana.

Ha impartido docencia en el Centro de Estudios Musicales “Juan Antxieta” de Bilbao y en el Conservatorio de Bilbao, siendo actualmente profesora de armonía y contrapunto, y técnica de la composición en MUSIKENE. Ha dictado igualmente numerosas conferencias y *master-classes* sobre su música tanto en universidades vascas como en Alemania, Argentina o Chile.

Es autora principalmente de música de cámara y orquestal, siendo sus obras estrenadas en destacados festivales musicales de Europa, América y Asia. Ha logrado diversos premios con obras como *Gogoan* (Berziztu, 2001), *Gerok* (premio AEOS 2007) o *Haizearen nahiak* (Concurso Grazyna Bacewicz, Lodz, 2012).



# Musikasteko Kontzertu Didaktikoak

**22,23,24**
maiatza
mayo

astelehena,
asteartea,
asteazkena
lunes, martes, miércoles

9:30 eta 11:00etan
Niessen Kulturgunea

## Musika-fabula publiko guztientzat
Fábula musical para todos los públicos

*MARIBEL OILOA*

Libretoa: **Ana Salustiano, Mikel Mate, Amaia Lizarralde**
Musika: **TEPODO konpositore elkartea**
**Mikel MaTE, Jose Manuel CresPO, Lander ZurDO**
Komikia: **Soreen Lizaso**
Koreografia: **Marina Eskisabel, Iker Sanz**

Animaliez karakterizatutako interpreteak / Intérpretes caracterizados de animales
**Saioa Goñi (Maribel),** sopranoa
**Juan Laborería (Free),** baritonoa
**Enekoitz Martinez (Tximinua),** biolina
**Roberto Pacheco (Txakurra),** saxofoi altua
**Iker Sanz (Pitxi),** dantza
**Marina Eskisabel (Annie),** dantza
Karakterizatu gabeko interpreteak / Intérpretes sin caracterizar
**Judith Montero,** saxofoi soprano eta baritonoa
**Lander Zurdo,** ordenagailu, teknika
Zuzendaritza eszenikoa: **Amaia Lizarralde**
Ekoizpena: **Anitz Musika**



musika bulegoa
euskal herriko musika bulego elkartea

tepodo
konpositore elkartea

Anitz Musika

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Errenteriako Herri Arte Eskolako Kontzertuak



Errenterian 1916an ekin zitzaion musika irakasteari. Han zuzen ere, José Mª Iraola hasi zen, bi instrumentu-espezialitatetan: metala eta zura.
1918an Udal Musika Akademia sortu zen.
Gerra Zibilaren ostean, Musika Kultura Elkarteak hartu zuen Errenteriako musika hezkuntzaren ardura.
Errenteria Musikal musika akademia 1981ean sortu zen, kultura-ekipamendu sendoa martxan jarri nahi izan zuten errenteriarren talde baten helburu nagusi gisa. Ikasleen gurasoen eta Errenteriako Udalaren artean sortu zuten. Akademia hori ez zen ofiziala, baina aintzat hartzea lortu zuen.
1986 urtean, berriz, Oinarrizko Mailako Musika Kontserbatorioko baliozkotasun ofiziala lortu zuen; eta 1991 urtean, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioko behin betiko ofizialtasuna.
Geroago, Hezkuntza Sistemaren Lege Orokorra abian jarri zenean, oinarrizko kontserbatorioa musika-eskola bihurtu eta maila horretako jardunari ekin zion 1993-1994 ikasturtean. Erdi mailako ikasketei dagokionez, berriz, 2000. urtean, ikasketa hauek plan berrira egokitu egun musika irakaskuntza profesionaleko ikastetxe ere bada.
2021/2022 ikasturtetik aurrera Herri Arte Eskola gisa arte diziplina berriei kabida emango dien eskola gisa ibilbidea hasi du eta era honetan musikaz gain dantzako 5 espezialitate, antzerkia, hitza-ren eremu artistikoa eta adierazpide plastiko-bisualetan ere ikasteko aukera zabaldu da.

La enseñanza de la música en Errenteria nace en 1916, de la mano de José Mª Iraola, con dos especialidades instrumentales: una de metal y otra de madera. En 1918 se crea la Academia Municipal de Música. Tras la Guerra Civil, la Asociación de Cultura Musical recoge la responsabilidad de la formación musical.
Errenteria Musical surgió en 1981 como objetivo fundamental de un grupo de errenteriarras que se propuso poner en marcha un equipamiento cultural de envergadura, siendo sus fundadores los padres y madres de alumnos y alumnas y el Ayuntamiento de Errenteria. Esta academia no era oficial, pero sí reconocida.
En el año 1986 consigue la validez oficial definitiva como Conservatorio de Música de Grado Elemental y en el año 1991 como Conservatorio de Música de Grado Medio.
Con la puesta en marcha de la Ley General del Sistema Educativo, el conservatorio elemental se reconvierte en escuela de música y comienza a funcionar como tal en el curso académico 1993-1994. Con respecto al grado medio, en el año 2000 adecúa dicha enseñanza en el ámbito del nuevo plan de estudios, siendo desde entonces también un centro de enseñanzas profesionales de música.
A partir del curso 2021/2022 empieza una nueva singladura como Herri Arte Eskola, dando espacio a otras disciplinas artísticas de modo que además de la música ofrece la posibilidad de aprendizaje en 5 disciplinas dancísticas, el teatro, el ámbito de la palabra y las artes plásticas y visuales.



**25** maiatza mayo | osteguna jueves | Xabier Olaskoaga Plaza

## Zerutik infernura, musika denboraren bidean

### HAE-ko Orkestra Txiki — 18:00etan

**Leire Pikabea,** zuzendaria

### Donostiako Musika Eskola eta Errenteriako HAE-ko Helduen Orkestrak — 20:00etan

**Amaiur Cajaraville, Ignacio Alkain,** zuzendariak

**26** maiatza mayo | ostirala viernes | Xabier Olaskoaga Plaza

## Euskal kantak

### Errenteriako HAE-ko Trikitilariak eta Dultzainariak — 18:00etan

**Haritz Ezeiza, Oskar Estanga,** zuzendariak

**27** maiatza mayo | larunbata sábado | Xabier Olaskoaga Plaza

## Bihurrikeri karibear-euskaldunak

### Aldapeko Basque Latin Jazz eta Errenteriako HAE-ko Banda — 18:00etan

**Julen Izarra, Imanol Iribarren,** zuzendariak

ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN

AMA
Andra Mari Abesbatza

Eresbil

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN

KULTURA
kreaktiboa

ERRENTERIA
UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

BABESLEAK PATROCINAN

LABORAL
kutxa

musika
bulegoa
euskal herriko musika
bulego elkartea

super
amara

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

Herri
ARTE ESKOLA

Euskal Herriko
goi-mailako musika
ikastegia

Centro superior
de música
del País Vasco

musikene

Musikagileak